

**BARRUAN:**  
AMAIA LIZARRALDE  
'ASTEON' ALDIZKARIAN

**Asteon**

ETA ZURE HERRIKO ALDIZKARIA

**KIROLA: AIZKORRIKO MARATOIKO SAILKAPENAK ETA DENBORAK /10**

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko maiatzaren 28a • IV. urtea • 157. zenbakia • DOAN BANATZEKO



**European Newspaper AWARD**

Goienkaria

ONDOEN DISEINATUTAKO TOKIKO AGERKARIA EUROPIAN

**Goienka2a**

Artzaitour: artzainen lana gertutik jarraitzeko aukera

**ANTXON PEREZ CALLEJA**

*"Bizimodua garestitu egin da eta Euroaren inflazioa espero zena baino handiagoa izan da" /7*



GOIENKARIA

## Dena gertu Bergarako jaiak hasteko, gaur

Bitorianatxoren jaitsierarekin hasiko dira Mendekoste jaiak gaur, egubakoitza, San Martin plazan, 20:00etan. Eta martitzenera bitartean ekitaldi ugari izango dira herrian. Bergarako Udalak 110.000 euro inbertitu ditu jaietako ekitaldietan, iaz baino 20.000 euro gutxiago. /BARRUAN, GEHIGARRIA

**'ASTELEHENEKO GOIENKARIA'-N JAIETAKO KONTU GUZTIAK!**

**ASTEKO GAIA: HERRI PLATAFORMAK UDALETATIK KANPO**

## Plataformek egoera salatu dute egunotan

Udal hauteskundeetatik urtebetera gauzak ez direla aldatu salatzeko eta euren egoera gogora ekartzeko mobilizatu dira Debagoienerako herri plataforma guz-

tiak. Ibarreko herri guztietako plataformek kale bilkurak egin dituzte, "apartheid politikoa" salatzeko: "Gaur da eguna, herri-tarren borondatea desitxuratu

eta demokrasiari iruzur eginaz, duela urtebete hautatutako udal horiek herriaren hitza eta borondatearekin zorretan daudena", diote. /3



Martitzenean, udal hauteskondeak egin zirela urtebete bete zela-eta, elkarretaratzeak egin zituzten herri guztietan. LEIRE KORTABARRIA

**AURRE MATRIKULA**  
Ekainaren 1etik 9ra

**MATRIKULA**  
Uztilaren 1etik 7ra

**Ian etorkizuna gertuago duzu**

**GOI MAILAKO ZIKLOAK**

- Administrazio eta Finantzak
- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Plastikoa eta Kautxugintza

**ERDI MAILAKO ZIKLOAK**

- Mekanizazioa (goizez eta gauzez)
- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak
- Plastikoa eta kautxuaren eraldaketa
- Administrazio kudeaketa

943 76 24 91  
943 76 38 40  
www.imatuna.com

**75**  
URTE  
HETZER

Zatoz eta ezagutu gure espezialitate eskaintza zabal!

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA  
Ibargarai 1 • 20570 • BERGARA

**Preziorik onena bermatzen dugu:**  
Merkeago aurkitzen baduzu, diferentzia abonatuko dizugu\*

\*Ikus baldintzak dendako informazio-mostradorean

Garibai Etorbidea, 2-6  
www.forumspor.com

**SPORTLAND**  
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

**ERDI-ERDIAN 'ARGIA'-REN ESKUORRIA**

Ale honekin batera, Argia astekariaren eskuorri bat aurkituko duzu erdi-erdian. Irakurri ezazu arretaz, zure interesekoa baita. Izan ere, hainbat opari daukazu aukeran, Argia astero-astero etxean jasotzeko konpromisoa hartzen baduzu.

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

- ◆ Administrazio eta Finantzak (EGUNEZ eta GAUEZ)
- ◆ Nazioarteko Merkataritza
- ◆ Gorputz eta Kirol-ekintzen Sustatzea

**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

- ◆ Administrazio Kudeaketa
- ◆ Merkataritza

**Uni****EIBAR**

Otaola Hiribidea, 29 - 20600 EIBAR  
Tel. 943 20 84 44 /  
Faxa. 943 20 31 96  
E-maila. uni@iesunibhi.com  
www.iesunibhi.com

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

- ◆ Telekomunikabide eta Informatika-Sistemak
- ◆ Informatika Aplikazioen Garapena
- ◆ Informatika sistemen administrazioa

**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

- ◆ Informatika Sistemen Ustiapena

**Uni****ERMUA**

Ongarai Auzoa - 48260 ERMUA  
Tel. 943 17 62 57  
Faxa. 943 17 64 50  
E-maila. uni@iesunibhi.com  
www.iesunibhi.com

**Aurrematrikula: ekainaren 1etik 9ra****ATEAK ZABALTZEKO EGUNA: Maiatzaren 29an, 11.00etatik 13.00etara****Elgoibarko Institutua**

San Roke, 1 Arregitorre, 2

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net



**ELGOIBARKO  
INSTITUTUA**  
2004-2005  
ikasturtea

**LANBIDE HEZIKETAKO HEZKUNTZA ZIKLOAK**

ERDI MAILAKO ZIKLOAK: TEKNIKARIA

- Elektromekanika (Automozioa, 2.000 ordu)
- Karrozeria (Automozioa, 2.000 ordu)
  - Merkataritza ( 1.400 ordu)
- Erizaintza laguntza osagarriak ( 1.400 ordu)

GOI MAILAKO ZIKLOAK: GOI TEKNIKARIA

- Automozioa ■ Administrarritza eta finantzak
- Ingurugiro osasuna

*zatoz  
elgoibarko  
institutura*

**HEZKUNTZA ZIKLOETARAKO AURREMATRIKULA: ekainaren 1etik 7ra**

**Azpiegitura teknologiko aurreratuena**, 80 ikasgairen eskaintza, **lan praktikak European**, Irakasle lizentziatu, ingeniari edo diplomatuek, ISO 9002 kalitate ziurtagiria, prozedura garden eta kontrolatuak, lan munduan sartzeko emaitza ezin hobek

# Hauteskundeetatik urtebetera, plataformek egoera salatu dute

## Dagozkien zinegotziak eskatzeko mobilizatu dira aste honetan

LEIRE KORTABARRIA

Udal hauteskundeetatik urtebetera, gauzak ez direla aldatu salatzeko eta euren egoera gogora ekartzeko mobilizatu dira Deba-goieneko herri plataforma guztiak. Hilaren 25ean, hain justu hauteskundeon urtemugan, ibarreko herri guztietako plataformek kale bilkurak egin zituzten, "apartheid politikoa" salatzeko: "Gaur da eguna, herritarren borondatea desitxuratu eta demokraziari iruzur eginaz, duela urtebete hautatutako udal horiek herriaren hitza eta borondatearekin zorretan daudena", diote, eta "tristuraz gogoratu eta ozenki salatzen" dute gertatu zena.

### PLATAFORMEN PROPOSAMENA

Euren eskaera orduko bera da: ibarreko 23 zinegotziak eman diezazkietela. Horretarako, udalotan proposamen bat aurkezten dihardute egunotan: hain zuzen, iazko boto guztiak kontuan hartuz gero euren dagozkien aulkiak dituzten alderdiei eskatzen diete zerrenda osoak uko egitea karguari, eta, postu horietarako, plataformek proposatutako herritarrek aukeratzea.

Udalek proposamena azterzen duten bitartean, ez dirudi, ordea, etorkizun handirik izango duenik. Ibarreko udal guztiak, Gatzagakoa izan ezik, EAJ-EA koalizioak zuzentzen ditu, eta aurreratu dute ez daudela proposamenarekin ados. Aralar alderdiak ere ez du begi onez ikusten proposamena. Kide batzuek azpimarratzen dute horrek ez lukeela egoera konponduko, izan ere, plataformetako kideek ezin izango lituzkete aulkiak hartu, eta euren proposatutako herritarrek ez lirateke hauteskundeetan aukeratutakoak izango; beste batzuek diote

### LEGEAK BABESTUTA

#### Adin nagusiko edozeinek bete dezake postua

Plataformen proposamena Espainiako 5/1985 LOREG legearen 182. artikulua babesten du. Hain zuzen, alderdi bateko zerrendak hautagai edo ordezko barik geratuz gero, artikulua horrek dio alderdiak aukeratutako "adin nagusiko edozein herritarrek" hartu ahal izango duela postua. Plataformek kide "garbiak" proposatuko lituzkete.



Kale bilkurak egin zituzten plataformek joan den martitzenean. Argazkian, Arrasatekoa.

UBANE MADERA

*Alderdiek karguak utzi eta plataformek aukeratutako kideak izendatzea proposatu dute*

"lege aldetik oso arriskutsua" dela legearen barne lan egiten duten alderdiendako, eta esaten dute "neurri propagandistikoa" dela eta ez benetako urrats bat.

### HERRIZ HERRIKO EGOERA

Herri plataforma guztien egoerak, funtsean, berdinak dira, eta

*Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati eta Elgetan, euren iritzia kontuan hartzen du udalak*

euren helburua, alegia, horixe aldatzea da. Oñatiko Ereitten plataformak dioten bezala: "udalari aditzera eman diogu gure helburua dela gure zinegotzien legezko onarpena lortzea, eta lau urtean egoerari buelta ematea".

Hala ere, herri bakoitzean, jarrera desberdinak egon izan

*Arrasaten, Bergaran eta Antzuolan, plataformek ez dute udalaren aldetik errekonozimendurik*

dira, eta egoera ez da guztiz berbera udal guztietan. Funtsean, herri plataforma guztiak joaten dira udaletako bilkura eta batzorde publikoetara, eta parte hartzen saiatzen dira. Baina udal bakoitzaren esku dago kontuan hartzea edo ez, informazioa ematea, eta euren ekarpena kontuan har-

tzea. Eskoriatzan daude egoera onenean: han, euren esandakoa kontuan hartzen da, eta neurri bateraino, hainbat ardura betetzen dituzte udal bizitzan.

Plataformen iritzia kontuan hartzen da Oñatin, Aretxabaletan eta Elgetan. Elgetako egoera nahiko berezia da: EAJ-EAK udal lanean parte hartzeko proposamen batzuk egin dizkio Auzolanian taldeari, eta horixe lantzen dihardute egunotan; horien bidez, plataformak parte hartze mota bat onartuko luke, baina zinegotzi errekonozimendu eskarari uko egingo lioke.

Oro har, herri horietan, alde arto harremana "ona" da. Are gehiago: hainbat udaletan, plataformetako kideek diruordaina jasotzeko modu legala ere aztertzen ari dira.

Egoera guztiz kontrakoa da Arrasaten, Bergaran edo Antzuolan, eta salatzen dute "inongo errekonozimendurik" ez dutela euren udalen aldetik. Hemen, udalak beste edozein herritar bezala hartzen ditu plataformetako kideak.

### GAKOA, BORONDATEA

Urtebeteren ondoren, legeak agintzen jarraitzen du eta Deba-goieneko udalek hori betetzen dute. Horren aurrean, hainbat alderditako ordezkariak gehien errepikatzen duten hitzetako bat "borondatea" da; alde guztion aldetik borondatea, bai udalen, bai eta herri plataformen aldetik ere. Horri esker, udal batzuetan egoera zerbait hobetzea lortu da.

Ahots batzuek ohartarazten dute "plataformek euren eskaera, errekonozimendu legala", ez dutela "sekula" lortuko, ez udal agintaldi honetan behintzat. Bestalde, ibarreko hainbat lekutan urratsak eman dira. Ikusi egin behar mugak nora arte nasaituko diren.

### HERRITARREN ZERRENDATA

#### Iparraldeko zerrendari botoa emateko deia

Iazko oso antzeko gertakizunak dira hizpide egunotan: Europar Hauteskundeetarako Herritarren Zerrenda baliogabetu egin du Espainiako Auzitegi Gorenak, Herritarren Zerrenda "Batasunaren oinordeko" zela argudiatuz.

Hori dela eta, HZk dei egin du Ipar Euskal Herriko zerrenda bozkatzeko, han legezkoa da-eta.

### ARALARREK DIOENA

#### Euskal Herriko hainbat udalerritako formula

Aralarrek bere proposamena aditzera eman du egungo egoera konpontzeko eta plataformen parte hartzea modu legalean bideratzeko: hain zuzen, Euskal Herriko hainbat udaletan egin den bezala, udalak erabaki gune paraleloak sortzea. Hor hartutako erabakiak lotesleak izango lirateke udalarendako, eta plataformek esku hartzerik izango lukete.


AKADEMIA

## BASTIDA

Araba etorbidea 3, 1. pisua, Arrasate.  
Tel.: 943 793 533 Faxa: 943 790 628  
E-maila: bastida@bastida.es

Laguntza klaseak  
Enpresa zientziak  
Informatika  
Internet  
Programazioa  
Autocad  
Kontabilitatea  
Mekanografia  
Nominak  
Web orrien diseinua  
Photoshop  
Ingeniaritza (baita abuztuan ere)  
Informatikako ekipaien mantentze eta konponketa

Udako ikastaroak 2004



NAIARA ERRASTI

Mazmela auzoan ordainlekua eta zerbitzugunea egin nahi ditu Diputazioak. Eskoriatzarrak ez daude horrekin ados.

## Aldundiak martitzenean emango du A-1eko alegazioen azken erabakia

*Kaltetutako eskoriatzarrak haserre daude Aldundiaren jokaerarekin*

JULEN IRIONDO

**A-1ari jarritako alegazio gehienak Diputazioak ez dituela aintzat hartuko salatu dute autobiak kaltetutako eskoriatzarren elkarteak. Aldundiko topografoek euren lurra inbaditzen jarraitzen dutela ere salatu dute.**

A-1 ordainpeko autobideak kaltetutako eskoriatzarren elkarteak astelehenean egin zuten bilera Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariek. Bilera horretan entzundakoaren arabera, "oso nabarmenak diren alegazio gutxi batzuk" baino ez ditu onartuko Aldundiak.

Diputazioko teknikariek Eskoriatzara egindako bisita honen

ostean, haserre jarraitzen dute autobiak kaltetutako herritarrek. Batetik, aurkeztutako alegazio gutxi onartuko dituelako, eta bestetik, denbora luzeegia behar izan omen dutelako Diputazioko teknikariek kaltetuen deia erantzun eta Eskoriatzara etortzeko, eta dagoeneko astirik ez dagoelako alegazioak behar bezala aztertzeko. Izan ere, Aldundiko tekni-

*Gauzak aldatzen ez badira, kaltetuek mobilizazioak deituko dituzte datozen egunetarako*

kariek ekainaren leian, martitzenean, emango diete diputatuei alegazioen gaineko iritzia, eta haiek egun horretan bertan hartuko dute azken erabakia. Epea luzatzea eskatzen dute kaltetuek.

### EUREN LURRAK INBADITU

Diputazioko topografoek euren lurra inbaditzen jarraitzen dutela ere salatu zuen A-1 ordainpeko autobiak kaltetutako herritarren taldeak. Gainera, Zari-mutz auzoan zenbait arbola moztu omen dituzte jabeen baimenik eskatu gabe.

Gauzak aldatzen ez badira, mobilizazioak deituko dituzte kaltetuek datozen egunetarako. Oraingoan, eskutitzak bidali dizkiete Diputazioari, Jaurilaritzari eta lehendakariari.

## Elkartasun Eguna egingo dute zapatuan Arrasaten

*Iparrek eta Hegoak elkar ezagutzeko antolatu dute eguna*

OIHANA ELORZA

**Bihar, zapatua, ikusteko, entzuteko eta dastatzeko diren Iparreko eta Hegoko hainbat gauza egongo dira Arrasateko Seber Altube plazan, egun osoan, 11:00etatik 20:00etara, hain zuzen ere. Elkartasun Eguna antolatu dute GKEek.**

Besteak beste, Saharako *haima* bat jarriko dute Seber Altuben, eta te dastaketa eta henna tailerra egongo dira barruan. Hango musika talde batek, gainera, eguna girotuko du. Bidezko merkataritzako produktuen dastaketa

eta salmenta ere egongo da, hala nola: kafea, txokolatea, azukrea, mermeladak, ehungintza, rona, kamisetak, artisautza eta gehiago. Liburuak eta aldizkariak ere izango dira, eta baita haurrentzako jokoak eta erakusketak ere. Izan ere, gobernu kanpoko erakundeen parte-hartzeaz gainera, herriko ikastola eta ikastetxeetako ikasleek ere parte hartuko dute eta beraien lanak aurkeztuko dituzte.

Elkartasun Eguna Harreman, Komite Internazionalistak, Caritas, eta beste hainbat gobernu kanpoko erakunde antolatu dute, seigarren aldiz.

## Karibera bidaiak 'GOIENKARIA'-ren harpidedunendako

*Uztailean zozkatuko da, eta abenduan itsas bidaiak bat*

GOIENKARIA

GOIENKARIAk astelehenean kaleratzen duen edizioaren harpidedun artean Karibera bidaiak zozkatuko dugu uztailean. Hain justu ere, Dominikar Errepublikara bi lagunendako bidaiak zozkatuko dena.

Bidaiaren gastu guztiak, hegaldia eta egonaldia (dena kontuan hartuta) barne daude, eta 9 egun edo 7 gaueko bidaiak da. Abioia Madrildik edo Bartzelonatik aterako da. 2004ko iraila eta abendua bitartean egin beharko dute bidaiak saria jasotzen dutenek.

Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun artean astero zozkatzen dira hainbat sari. Orain, ostera, uztailean, bidaiak zozgarri bat zozkatuko dute eta abenduan beste bat: Mediterraneoan barrena itsas bidaiak bat bi lagunendako.

Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedunek hainbat abantaila dituzte: etxean jasotzen dute alea astelehenero, egunkari saltokietan baino %20 merkeago ateratzen zaie, eta, gainera, hainbat opari jasotzeko aukera dute. 902 36 38 51 telefonora deituta egin daiteke harpidedun, urte osorako 20 euro bakarrik ordainduta.

## DEBAGOIENEAN LABUR

### Real Sociedad Bascongada de Amigos del Pais elkarteak bilera egingo du Bergaran

Datorren egunean, ekainaren 3an, egingo du bilera Bergarako udaletxean Real Sociedad Bascongada de Amigos del Pais-ek. Elkartearen barruko bilera garrantzitsua izango da. Estatutua berrizatu nahi du elkarteak, eta birmoldaketa horren inguruko batzarrak egingo du Bergaran. Bertan, 12 kide inguruk hartuko dute parte: egungo presidentek eta presidente ohiek eta Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Madrilgo idazkari eta zuzendariak. Real Sociedad Bascongada del Amigos del Pais elkarteak Azkoitian sortu zen, baina Bergaran fundatu zen, duela 240 urte, 1764an. Bergaran eraiki zuen Errege Seminarioa ere. Sortu zenetik, beti izan du harreman ona eta lotura estua elkarteak Bergararekin.

### Harakinak sinadurak biltzen hasi dira Zubillagako hiltegia ez ixteko eskatzeko

Debagoieneko harakinak Zubillagako hiltegia ez ixtearen aldeko sinadurak biltzen hasi dira, eta kartelak ere jarri dituzte harategietan. Bien bitartean, Mankomunitateak eguaztenean egin zuen hileko batzarrak, eta hiltegia izan zen hizpide. Ignacio Lakuntza Mankomunitateko presidentek jakinarazi zuenez, hiltegiaren jardura guztia kontuan hartuta, %30 baino ez dagokio Debagoienari. Hau da, Arabako, Bizkaiko nahiz Nafarroako harakin eta abeltzainek erabiltzen ei dute gehien Zubillagako hiltegia, eta Lakuntzaren ustez, Debagoieneko bizilagunek ez diete zertan ordaindu zerbitzu hori kanpoko. Lakuntzaren esanetan, hiltegiaren erabiltzaileen %30 bakarrik dira ibarrekoak; %70 kanpokoak dira.

# Gaur, egubakoitza, hasi da Europako parlamenturako hauteskunde kanpaina

*Duela bost urte baino gehiago kostatuko zaie alderdiei Bruselako eserlekua lortzea*

OIHANA ELORZA

Ekainaren 13an egingo dira Europako parlamenturako hauteskundeak, eta dagoeneko hasi da kanpaina. Europaren zabalkundearen ostean, azken hauteskundeetan baino boto gehiago lortu behar dira Bruselan eserlekua lortzeko.

Ekainaren 13an, datozen bost urteotan Europako parlamentariak nortzuk izango diren erabakiko da. EAJk eta EAK koalizioak osatu dituzte beste alderdi batzuekin batera, norik bere aldetik. Aralar alderdia bakarrik doa, eta Herriarren Zerrenda, berriz, Konstituzio Auzitegiaren erantzunaren zain dago edizioa ixteko orduan. EB ere koalizioan doa eta PP eta PSOE, bakarrik. Debagoiendarrak ere ageri dira alderdietako zerrendetan, baina ez zerrendaburu.

## ZENBAKIAK

Bruselako eserlekua lortzea, ordea, azken hauteskundeetan baino gehiago kostatuko zaie alderdi politikoei. Maiatzaren 1az geroztik 25 estatuk osatzen dute Europa, eta zabaltzeak Europako parlamentua birmoldatzea eskatu du.

Espaniak, esaterako, aurreko hauteskundeetan baino hamar eserleku gutxiago izango ditu. 2004ko hauteskundeetan, 54 aulki egokitu zaizkio; Frantziari, 78.



OIHANA ELORZA

EAKo Marin Aranburu Bergarako alkartetxean egon zen eguaztenez, Herrien Europa programari buruz hizketan.

Eserleku bat lortzeko, 450.000 boto inguru lortu behar dira, 1999ko hauteskundeetan baino gehiago.

Guztira, 732 eserleku izango ditu Europako parlamentuak, lehen baino 106 gehiago, eta 25 estatu ordezkatu dituzte aulki horietan eseriko diren diputatuek. Europako hauteskundeak ez dira egun berean egingo toki guz-

*Duela bost urteko hauteskundeetan, %26ko abstentzioa egon zen Debagoienez*

tietan. Ekainaren 10etik 13ra bitartean egingo dira. Hauteskunde egunean hautes-mahaietan egongo diren herritarrak aukeratuta daude. Boto eskubidea 349 milioi europarrek dute.

## 1999KO EMAITZAK

1979ko ekainean egin ziren lehen aldiz Europako parlamenturako

hauteskundeak, bigarren mundu gerra amaitu, eta 34 urtera. Azkenak 1999an egin ziren. Orduan, bosgarren legealdirako hautagaiak bozkatu zituzten.

Duela bost urte, 1999an, Debagoieneko herri gehienetan abstentzioa %25 baino altuagoa izan zen. Bestalde, orduan, elkarrekin joan ziren EAJ eta EA, eta koalizio horrek lortu zituen eskualdeko boto kopuru handiena. Arrasate eta Antzuolan izan ezik, gaitzeko herri guztietan gailendu zen koalizioa. Garai hartan, Euskal Herritarrok alderdia aurkeztu zen, eta Aralar, berriz, ez.

## KANPAINAKO EKITALDIAK

Europako parlamenturako hauteskundeek beste hauteskundeek baino harrera txikiagoa izaten dute, normalean, gizartean. Udal hauteskundeek, Legebiltzarrerako hauteskundeek eta hauteskunde orokorrek inplikazio handiagoa izaten dute herritarren artean. Hala ere, alderdi politiko guztiek azpimarratzen dute oso garrantzitsua dela Bruselan egotea.

Hauteskunde kanpaina bart, hasi da, eta gaur bertan hasi dira alderdi politikoak beraien programa eta helburuak aurkezten. Goizean, esaterako, Barbara Durhkop alderdi sozialistako hautagaia, Arrasateko merkatan ibili da larrosak banatzen herritarren artean.

**ETEO**

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

**ESKAINITAKO TITULUAK**

**IDAZKARITZA**

**ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK**

**APLIKAZIO INFORMATIKOEN GARAPENA**

**NAZIOARTEKO MERKATARITZA**

**MERKATARITZA KUDEAKETA ETA MARKETINA**

**Irekita izen aurrez emateko epea**

**BISITATU GURE WEBGUNEAK!**

Larraña auzoa, 16 • 20560 OÑATI (Gipuzkoa)  
Telefonoa: 943 71 80 09 Fax: 943 71 81 62

informacion@eteo.mondragon.edu • www.eteo.mondragon.edu

**Zorion agurrak, SMS bidez!**



Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, **Astlehenerako Goienkaria-k** beste aukera bat emango dizu: SMS bidez zoriondu.

**Ekainaren 7tik aurrera!**

Gainera, Goienako edozein egoitzetara etorri edo deituz ere, zoriondu ahal izango dituzu lagunak eta etxeok **Astlehenerako Goienkaria-n!**

**Goienkaria**  
astlehenean, aste bukaera osoa

## ANTZUOLA

**Kirolariei laguntzak emango dizkiete, osasun azterketak egiteko**

Kirol jarduerarekin lotutako osasun azterketak egiteko dirulaguntzak emango dizkie Udalak herriko kirolariei, norbanakoei zein kirol taldeetako kideei. Gehienez, urtean behin jaso ahal izango du bakoitzak laguntza hori, 25 euro, hain zuzen ere.

Eskaera egiteko nahikoa da osasun azterketaren ordainagiria udaletxean aurkeztearekin.

Ekimen hori martxan jarrita, Udaleko ardura-dunen helburua da herri-tarrek kirola era ardurasuan eta adituen kontrol-pean egitea. /A.I.

## ARAMAIO

**Etorkizun beltza du Bañera elkarteak: oraingoz inork ez du ardura hartu nahi**

Areto futboleko taldeek asteburuan bukatuko dute jardunaldia, mutilek bihar jokatu dute eta denboraldiko azkeneko partidua; neskek, berriz, joan den asteburuan jokatu zuten azkena. Denboraldia agurtzeko, bazkaria egingo dute bihar elkarteko kideek, 20 bat lagunek. Ohiko agur bazkaria baino gehiago izango da, urte luzez elkar-terean zuzendaritzaz arduratu direnek utzi egingo dute eta kargua. Eta oraindik ez da inor azaldu Bañeraz arduratzeko. Hortaz, elkarterean etorkizuna ez da batere argia. /U.M.

## ELGETA

**Umeen Euskal Jai egunean dantzariak etxean hartzeko dei egin dute**

Ekimenaren 27an Umeen Euskal Jai egingo da Elgetan. Egun horretan 120 ume inguru joango dira herri-ara dantzara: Bergara, Antzuola, Arrasate, Aretxabaleta eta Soralezeko dantza taldeetako haurrak. Hori dela eta, antolatzaileek herritarrei dei egiten diete umeak bazkaritarako etxean hartzeko. Elgetarrei gutun bana bidaliko diete, eta lagundu nahi dutenek papera bete eta udaletxera eraman behar dute egunean bertan, zenbat ume hartzeko prest dauden esanez. /I.A.



OIHANA ELORZA

## OÑATI

**Arantzazuko lanak atzeratuta doaz, eta ez da epea beteko**

2002ko urrian hasi ziren Arantzazuko santutegiko lanak, eta 2004ko irailean amaituko zituztela uste zuten. Hala ere, lanak atzeratuta doaz eta urte bukaera helduko da obrak amaitu orduko. Eraikuntza greba, aldiz, ez da atzerapenaren zergati bakarra; lehendik ere bi hilabeteko atzerapena zuten lanek, hondakinak ateratzeko garaian atzeratu zen denbora, hain zuzen ere. Lanak bukatu ostean, turismo bulego berria egongo da aparkaleku handian, autobusen geltokian bertan. Kristoa zegoen tokia hausnarketarako tokia izango da, eta bideo txiki bat ere egongo da, gura duenak ikusteko. Oteizaren fraidearen estatua ere hantxe jarriko dute. Sarrerako eraikinean, berriz, frontoiak, bilera gelak, erakusketa gelak eta aterpetxea egingo dituzte. /O.E.

## BERGARA

**Mendekoste jaien aurrekontua 110.000 euro da aurten**

Ohikoa denez, Bitoriana-txoren jaitsierak hasiera emango die aurtengo Mendekoste jaietako gaur, egubakoitza, San Martin plazan, 20:00etan. Martitzena bitartean ekitaldi ugari izango dira herrian.

Pazkoetako jai egitarauaren aurrekontua iaz baino txikiagoa da. Udalak 110.000 euro inbertitu ditu aurten jaietako ekitaldietan, iaz baino 20.000 euro gutxiago, hain justu.

Diru partida handienak zezen festetara (19.500 euro), Bideberriko kontzertuetara (18.000 euro) eta San Martin plaza eta Espoiloiko dantzaldietara (17.000 euro inguru) bideratu ditu Udalak. Esan bezala, Betizu Bergarako Zezenzale Elkarteari 19.500 euroko dirulaguntza eman dio Udalak jaietako zezen festak antolatzearen.

Horren harira, domekako zezenketari dago-kionez, ordezkoa Ander Alvarez bergarar gaztea izango da.

## BARRAKEN PREZIOA

Diru sarrerei dagokienez, Udalak 28.965 euro kobratuko die ferietako salerosleei, terrenoa erabiltzearen. Horren ordainetan, inguruko hainbat herritan baino garestiagoak dira barrakak gure herrian. Barrakaren prezioa 1,50 euro izango da jaietan. Edozelan ere, astelehen goizean eta eguaztenez 0,75 eurotan salgai jarriko dituzte txartelak. Aurreko urteotan moduan, Matxiategiko aparkalekuan egongo dira barrakak. Gaztetxoendako jolasparkea eta trenaren izango dira Pazkoetan, besteak beste. /E.M.

## Zertzelada

**Barrakaren prezioa 1,50 euro izango da jaietan. Astelehen goizean, berriz, merkeago, hau da, 0,75 eurotan salduko dituzte txartelak**

## ARRASATE

**Monterrongo komunetan kalte handiak egin dituzte, laugarren aldiz**

Oso haserre daude Udalean, Monterrongo komunak direla eta. Laugarren aldiz apurtu dituzte. Komunak, konketa, sabaia... Den-dena apurtu dutela esan digute, 2.000 euro inguruko kalteak egin dituztela. Hori dela eta, Udalak adierazi du halakoek herritarrei egiten dietela kalte; gaineratu du ahalik eta laste-

ren konponduko dituztela komunak, baina oraingoz itxita egon behar dute.

Iazko apirilean inauguratu zituzten komun horiek, egunez eta gauez zabalik izateko asmoarekin. Baina hasierako hilabete hiru eraso jasan eta gero, Udalak erabaki zuen egunez bakarrik zabaltea. Orain, ikusi egin behar zer egin. /U.M.



AMAGIOIA LASAGABASTER

Den-dena apurtu dute Monterrongo komun publikoetan.

## ARETXABAleta

**Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia aurkeztuko du martitzenean**

Eusko Jaurlaritzak proposatutako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia egitea erabaki du Aretxabaletako Udalak. Euskara batzordea dagoeneko lanean hasita dago, eta aurkezpena martitzenean, ekainaren lehen eguna, egingo dute Eusko Jaurlaritzako, Foru Aldundiko eta Udaleko ordezkariak. Batetik, planaren berri emango dute; eta bestetik, Aretxabaletako euskararen egoera aztertu eta SEI elkarteak kale neurketen gainean emandako datuen balorazioa egingo dute Euskara Saileko ordezkariak. /M.A.

## ESKORIATZA

**Gaur banatu dizkiete orlak Psikopedagogiako ikasleei**

Orla banaketa egin dute Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Psikopedagogia ikasketak amaitu dituzten ikasleei eman diete orla. Hirugarren promozioiko 50 ikasleri banatu dizkiete, erai-kin klasikoaren klaustroan. HUHEZIKO irakasle, dekanoa eta karrerako zuzendariak hartu dute parte ekimenean. Bertan izan da Iñazio Oliveri Mondragon Unibertsitateko errektorea. Gainera, Bergarako Gabero abesbatzak *Gaudeamus* abestu du. Promozioan, hamarretik zortzi neskek dira. /Z.V.M.

## GATZAGA

**Gai zerrenda luzea landu zuten atzo egin zuten ohiko osoko bilkuran**

Ohiko osoko bilkura egin zuten atzo Gatzagan. Gai zerrenda luzea izan zuten hizpide udal ordezkariak. Besteak beste, gastuen onarpena eta San Migel garajeetako plazak erabili ahal izateko egitasmoa.

Bestalde, Indiano Etxea birgaitu egin gura dute, eta lanok egiteko beharko den aurrekontua kalkulatzeko arkitekto bat kontratatzea adostu zuten. Egoera txarrean dagoen eraikina birgaitu gura dute. Behin aurrekontua jakinda, etxeari zein erabilera eman adostu beharko da. /Z.V.M.

**A**ntxon Perez de Calleja ekonomilaria da, eta MCCko zuzendaritza taldean egin du lan hamabi urtez. Ekonomiaren inguruko hainbat ikerketa eta txosten egin ditu, eta Eusko Label izendapenaren bultzatzailea ere bada.

OIHANA ELORZA

### Prezioek gora egiten dute, eta gero eta estuago bizi gara.

Bai, baina ez dut uste egoera hain beltza denik. Azken batean, Espainia hazten doa 2000. urtea ezkerre, Europako batez bestekoaren ia bikoitza hasi da. Dena den, egia da ohikoak ez diren arrazoiengatik hazi dela: familien kontsumo pribatuagatik, batetik, eta eraikuntzagatik, bestetik. Hala ere, denok dakigu sektore hori ez dela oso iraunkorra.

Benetako garapena, batez ere euskal ekonomiarentzat, inbertsioa eta esportazioaren bidezko garapena da. Euskal ekonomia hazi egingo da, enpresak berriztatuz eta mundu mailako merkatu kuotak konkistatuz. Hori ez da egiten, ordea. Baina nahiko ondo ari gara eusten egoerari. Gertatzen dena da 2000. urtea ezkerre enpresak ez dutela inbertsiorik egiten, enpresa ziurgabetasun handia dago, konfiantzazko indizeak oso baxu daude, Alemania eta Frantzia, batez ere, eta hobetzeko egoerak ez du indarrik hartzen.

### Baina egia da euroarekin asko garestitu dela bizimodua.

Bai, hori egia da, eta batez ere Espainiako bizimodua garestitu da asko, eta lehiarako gaitasun handia galarazi digu horrek. Euroaren inflazioa espero zena baino handiagoa izan zen, bai.

Egia da Europako batez bestekoa baino gehiago hazten garela, baina era berean, gure prezioak ere Europako batez bestekoak baino gehiago igo dira. Ez dut esaten lotura zuzena dutenik, baina euskal esportazioa gelditu dago azken lau urte hauetan, eta hori atzerakada izugarria da. Hemengo ekonomiak esportazioen bidez bizi behar du, nahiz eta egun Europan inbertitzea ez kontsideratu esportazio, Europa gure barne merkatua baita.


### Maiatzaren hasieratik, gainera, 25 herrialdeetara zabaldu da Europa.

Bai, eta egoera horrek gauza askoren inguruko hausnarketa egitea eskatzen du. Gauza guztiek bezala, alde positiboa eta negatiboa du horrek ere. Merkatu berriak zabaltzen ditu egoera horrek, eta lehiakortasun bat ere badakar, gure antzerako produktibitatea duena, baina soldatak gureak baino baxuagoak dituenak.

Baliteke euskal enpresa askok erabakitzea lantegi berriak zabaltzea Europako ekialdean, batez ere produktu simpleak egiteko. MCCk ere horixe esan zuen joan den astean egin zuen batzarrean, eta automobilaren inguruko enpresek eta galdaketa eta forja ingurukoak ere jokaera bera izatea litekeena da.

### Agian horixe da sortu den beldurra; atzerrian lantegiak zabaltzeko, hemengoak itxiko dituztela.

Agian gertatuko da horrelakorik, baina ez dut uste orokortu egingo denik. Adibidez, multinazional guztiak jokaera hori erabiltzen ari dira. Duela gutxi, Panasonic enpresak xurgagailuak egiten zituen lantegia itxi zuen Katalunian eta Txinara eraman du. Baina nik uste dut euskal enpresaburuak hemen izango duela negozioaren muina, eta bertan garatuko ditue-



MIRARI ALTUBE

## Antxon Perez de Calleja

EKONOMILARIA

**“Euroaren inflazioa espero zena baino handiagoa izan da”**

### ETXEBIZITZEN PREZIOAK-‘BURBUILA INMOBILIARIOA’

**“Ez dut uste burbuila inmobiliarioa lehertu eta etxebizitzaren prezioa bortizki jaitsiko denik. Gerta daiteke prezioak horrenbeste ez igotzea, besterik ez”**

### PETROLIOAREN IGOERA ETA INTERES TASAK

**“Inflazioa da kontrolatu behar den lehen puntua, eta une honetan, ez dut uste interes tasak igoko direnik; petrolioren garestitzeak kezka gehiago ekar ditzake”**

la teknologia berria behar duten produktuak. Eta atzerrian, balio erantsi txikiagoa duten produktuak egingo dituzte, hau da, zailtasun txikiagoa dutenak eta eskulan merkeen abantaila izan dezaketenak.

**MCCk iazko balantzea eta datozen urteetako asmoak iragarri zituen duela aste batean. Ondo doakiola dirudi.**

Bai, 90eko hamarkadan zehar oso ondo egokitu den taldea da, baina ia euskal ekonomia guztia bezala. Hamarkada haren atarian galduta genbiltzan, etorkizunik gabe,

baina garai horretako krisiaren ostean, enpresak indartu egin ziren, ezustean gainera. Egun, *per capita* errenta altuenetakoa duen autonomia da Euskal Autonomia Erkidegoa, eta datuen arabera, Gipuzkoa da Espainiako *per capita* errenta altuena duen probintzia.

### Debagoienan, zehazki, kooperatibak egin du bide hori.

Beste eskualde batzuetan denbora luzeagoa behar izan dute erreakzionatzeko, baina lortu dutela uste dut. Gurean, esa-

terako, ez dago langabeziarik, baina azpiegitura eta eskulan kualifikatuaren falta dugu. Garapen arazoak daude, ikerketa lanak egin behar dira, produktu berriekin saiatu behar dugu. Hala ere, MCC bera baino, eskola profesionala garrantzitsua da. Hori, adibidez, epe luzearako inbertsioa da. Lehen, hezkuntza gastu bezala hartzen zen; orain, aldiz, inbertsio moduan ikusten da, eta horixe da.

### Txinari begira daude orain enpresa gehienak, han egon nahi dute.

20 urte barru lehen potentzia ekonomikoa izango da Txina, eta Txinan ez dagoena gaizki ibiliko da. Danok Bat, Irizar eta beste kooperatiba batzuk han daude dagoeneko, eta ez da harriztekoa MCCk ere asmo hori izatea. India ere asko aldatu da eta indarra hartu du. Mundua aldatu egin da, aldatzen doa, eta euskaldunok ere moldatu egin behar dugu.

### Etxebizitzaren inguruan, noiz jaitsiko dira prezioak?

*Burbuila inmobiliarioa* lehertu egingo dela diote batzuek, eta prezioak goitik behera jaitsiko direla, baina nik ez dut sinesten. Egia da neurrigabe igo direla etxebizitzaren prezioak, baina ez dut uste jaitsiera bortitza izango dutenik. Uste dut hementik aurrera gerta daitekeena prezioak horrenbeste ez igotzea dela, besterik ez. Bestalde, iragarpenek diote interes tasak ez direla igoko epe motzean edo ertainean, eta sektoreak *boom* hau lasaitzeko ahalbidea baduela uste dut. Egia da interes tipoa igotzen denean, familia asko estutu egingo direla, baina ez dut uste ondorio dramatikoak ekarriko dituen *burbuila*-ren leherketa gertatuko denik.

### Motzera ez, baina interesak epe luzean igoko direla diote adituek.

Bai, aurrean Ipar Amerikako interesak igoko direla espero da. Gure egoera ezberdina da, hazten goazelako, eta inflazioa kontrolatuta dago. Beraz, ez dago mehatxurik interesak igotzeko, Europan, baina egoera okerrean ere, igoera suabea izango dela espero dut. Hala ere, nik esango nuke Europako, eta, orokorrean, munduko ekonomiak ikasgai bat ikasi duela, alegia, lehenengo kontrolatu behar den puntua, inflazioa dela.

### Une honetan, petrolioren igoerak ere kezkatzen du gizartea. Gasolina litroa euro batera iritsi da.

Bai, baina LPPEko (OPEP) herrialdeek erreakzionatuko dutela uste dut, eta milioi bat edo bi milioi kupel gehiago merkaturatuko dituztela espero dut, eta prezioa jaitsiko dutela.

Azken baten, AEBei komeni zaien guztia egiten da. Azaroan dituzte han hauteskundeak, eta ez zaie komeni petrolioren garestitzea, beraz, jaitsi egingo dela uste dut. Ez dakit mendebaleko herrialdeei komeniko zaigun bezala, 24, 25 dolarretaraino jaitsiko den, baina argi dago ezin dela 36,38 dolarretan luzaroan mantendu.

### Munduan gertatzen diren gatazkak direla eta, burtsak ere gora eta behera dabilta. Non edo zertan sar dezakegu dirua, dirua egiteko?

Gaur egun konpontzeko arazo zaila da dirua non inbertitu, bai.

Niri askotan galdetzen didate diruarekin zer egin edo non sartu, eta gomen dio bera ematen diet guztiei. Dirua eduki bai, baina ditu kopurua handia ez bada, nik gastatzeko aholkatzen diet; egun dagoen egoera ikusita, norberaren kapritxoetan gastatzeko, epe motzean pentsatzeko eta diruaz disfrutatzeke. Aldiz, dirua herentzia baten bidez eskuratu baldin badute, edo gurasoen etxebizitza saldu badute, adibidez, diru kopuru hori handia bada, alegia, orduan bai, orduan lasai eserita ikusi behar da diruarekin zer egin, ondo pentsatu behar da.

## Gutunak

Zure iritzia helarazteko:  
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA  
Telefona: 943 76 92 71  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: goienkaria@goiena.com



## Ordü da!

366 dira igarotako egunak, (eta gauak); 8.784 ordu; 2003ko maiatz haren 25ean, ezker abertzaleko jendea, Euskal Herriko bizitza zibil eta politikotik kanpo uzteko, beste saio berri bat burutu zenetik; Francoren garaia birgogoratu genituen. Izan ere, egun hartan ospatu ziren udal hauteskundeetan, ez ziguten utzi, baldintza berdinetan parte hartzen;

Ezker Abertzalea, prozesu luze, baina sendo eta esperantzagarri baten ondorioz, gero eta indartsuagoa zen eta instituzioetan, eta udaletxeetan zehazkiago, gehiengo izateko gaitasuna zuen alternatiba bihurtzen ari zen.

Eta, baldintzarik injustu eta defaboratuenetan izanda ere, parte hartzeko genuen eskubidea, erabiltzen saiatu ginen; Gure egoitzak itxita, militante asko kartzelan, eta alde orotatik zigortuak izan arren, Euskal Herrian 160.000 eta Arrasaten 2.716 hiritarren botoa jaso genuen.

Halere, gure ordezkariak ez zuten aintzakotzat hartu, "demokraziaren" izenean, zuzentasunaren, eta nik dakit zenbat bertute eta birtualitate jabe (ordezkari) "ordezkaezinek", euren hutsegiteak inoren bizkar botatzeko aukera ez zuten alferrik galdutako; batzuek, eragile gisa, ezker abertzalea terrorismoarekin identifikatu, lotsagabeki, eta beste batzuek, txalo eginez edo isilduz, baina azken finean, gure eta guztion kontrako eskubide urraketa hain larria onartuz, eta sistema demokratikoari uko eginez.

"14 urte izan dituzte, hitz egiteko" (Lacunza). "Horrela badaude, beraiek nahi izan dutelako da" (EB); eta amaigabeko bilduma egin arte, zenbat halako. "gr-Aznar, es de gansos" diot nik, erdaraz eta guzti; bai; barregarri, negargarri ez balitz...!

Francok hasitako trantsizioak, definitiboki "ustel" egin zuela ikusita, haren aldeko apustua egin zutenek, errua ezker abertzaleari botata, ba zirudien, euren buruak zurituko zituztela; "Nuevo Proyecto-Proiektu Berria", saldu ziguten, iruzurti eta kondenatuak izan ginen ezereza eta betiko; legez, ez baikara ezer eta guri ezarritako zigorrak, ez baitu eperik.

Baina gauzak, urtebete beranduago, bere hartan dira; Ezker Abertzalea, "lekuz-kanpoko-legez-kanpo", baina bere-lekuan, Euskal Herriaren aitortza eta egoera onartezin honi irtenbide bat ematea eskatzen.

Sasi demokrazia, ordea, sasi-artean. Irtenbiderik, esperantzarik gabe. Indarkeriaren indarkeriaz, gezurrean oinarritutako egoera bati eutsi ezinik. Frutu onik eman ezinik. Ezertara ez konprometitzeko, aitzakiaren bila. Instituzio

guztien "jabe", Frankoren oinordekoak nahi dutena egiten jarraitzeko.

Eta orain zer?

Orain, esperantzari eusteko garaia dugu; pazientziak jokatzeko; Gure proiektuan sinisten dugula ikusarazteko unea; Urte luzeetan zehar egindakoaren emaitzak, baliatzeko.

Errepresioa jasan dugu eta jasaten ari gara; jokoz kanpo utzi nahi izan gaituzte;

baina hartarako, beraiek ezarritako joko arauak ere hautsi egin behar izan dituzte; Eta hori, nabarmenegia gertatzen ari zaie; eta gu are eta nabarmenago egiten saiatu behar gara.

Gizartetik isolatu nahi izan gaituzte, baina ikusarazi behar diegu, gu, gizarte honetan erabat txertatuak gaudela; inor baino errotuago;

Hots, gu gabe, ez dagoela proiektu demokratiko bat osatzerik Euskal Herrian. Euskal gizarteari ikusarazi behar diogu, benetako proiektu demokratikoa duena, Ezker Abertzalea bera dela, inor baldin bada.

Isilarazi nahi gaituzte, baina estidentzia barik, trumoi bezain ozen, Itzalarazi nahi gaituzte, baina itsutu barik, eguna bezain argi, jarrai dezagun, urrats berriz, bidea urratzen; bidea, bide baita, egiten bada gizartearen esku hartze, gero eta zabalagoa bilatzen; euskal gizarte bera bihurtuz, bere etorkizunaren sujetu. (Azken hau ez ote, sasi demokraziak onartu ezin duena?!). Gure nazio izaera, hizkuntza, giza antolamendu propioa, eta abar luzea errespetarazi arte.

Injustiziak dependentsia eta Dependentsiak injustizia daramatzatelako, justiziak independentzia eta Independentziak justizia ekarri behar dituzte.

Eta hori guztia egiteko, antolatzen eta berrantolatzen jarraitu behar; Denok zerbait emanez, bakar batzuek dena eman beharrik sendi ez dezaten.

Horretara bai, gaudela kondenatuak; Biolentotzat jo gaituztenez, hots, "Biolento" bagara, goazen soseguz. Irtsiko gara eta.

"Azkar" hitzak, bi esan nahi behintzat baditu euskaraz; bata, "abiadura handiz"; bestea, "indartsu", "sendo"; nik, egoera honetan, bigarrena aukeratuko nuke: eginez, eraikiz, indarrak (jendek) bilduz, aurreratzea.

Ordü da!, berriro be, betiko bidetik abiatzeko. Gauzie da, ametsak gauzatuz, gauza garelako erakustie. Aurrera bolie!

Hori bai, "Cuidado con los demócratas...!". Kontuz demokratioekin...!

XABIER ZUBIZARRETA, ARRASATEKO  
HERRI ANITZAREN IZENEAN  
Arrasate

## Haur dantzarien eguna

Aurten ere, aurreko urteetan egin adugun bezala, ekainaren 20an, Haur Dantzarien Eguna ospatzeko asmotan gabiltza Arrasaten.

Dakizuenez, ibarretik eta Euskal Herriko beste probintzietatik gonbidaturiko haur dantzariekin osatu ohi dugun festa da hau, 500 haur inguru elkarrekin dantza eta festa giroan gure herriko kaleak alaitzeko asmoz.

Hau dela eta, zuengana zuzentzen gara zuen orrietan jendearen parte-hartzea bultzatuz eta, batez ere, ohar hau kaleratzeko eskatuz:

Beste urte batzuetan etxera bazkaltzera haurrak eramateko eskaera orriak herriko eskoletan banatu izan baditugu ere, aurtengoan orri horiek dantza taldeen lokalean (Olarre kalean), AEDn eta HIRE liburu dendan izango direla eskuagarri azpimarratu nahi dugu.

Denboraz larri ibili arren, zuen erantzunak egun hori arrakastatsua bilakatzeko lagunduko digula espero dugu.

Besterik gabe, zuen laguntza alde aurretik eskertuz, adeitasunez agurtzen zaituztegu.

AMALUR LOPEZ, LORE GAZTEAK  
ETA TXIKITXU TALDEEN IZENEAN  
Arrasate

## Mila esker, denoi

Kaixo, lagun. Lerro hauen bitartez Euskararen alde eginiko ahalegina eskertu nahi dizuegu, zuen laguntzari esker Aretxabaletako Euskararen Eguna 2004 oso arrakastatsua izan baita. Eskerrak, beraz, honakooi: Okila eta Hiruatx, txalapartariak, kanpai jotzailea, antzerki taldea, Gazte Ekimena, Kua-drillategi, Aretxabaletako trikitilariak, Gemes, Algara ludoteka; Urbaltz, Muru Alde, Uratz Alde eta Batzokia elkarte gastronomikoak; tabernariak, eta oro har, parte hartu zuten herritar guztiei. Mila esker, bihotz-bihotzez, denoi.

LORAMENDI EUSKARA ELKARTEA  
Aretxabaleta

## Naziotasun eguna

Askok gogoan izango duzue lehengo Aurteko martxoaren 30ean Ibarren antolatu genuen Naziotasun Eguna. Aurten, berriz, Gipuzkoako barnealdetik Bizkaiko kostalderaino jauzi egingo du Naziotasun Eguna. Zehazki, Ondarroan izango da, ekainaren 6an.

Bai Euskal Herriari herri ekimenak antolatzen du Naziotasun Eguna. Jai honen xedea Euskal Herriari nazio bezala dagozkion eskubideen aldarria eta defentsa burutzeko da.

Ekainaren 6an Ondarroan, besteak beste, ondorengo gauzak aurkituko dituzte: trikitilariak, erraldoiak, erromeria, herri bazkaria, ekitaldi politikoa, bertsolariak, herri kirolak, itsasontzi bira, haurrentzako jokoak, Ondarroa Ezagutzen ibilaldia, arraunlariak... Eta, nola ez, EHNA tramitatzeko aukera izango da udaletxean. Hona hemen egun-pasa eder bat egiteaz gain, Euskal Herriarekiko dugun konpromisoa berrindartzeko aukera paregabe bat. Zatoz Ondarroara!

Euskal Herriaren aldeko pauso eraginkorrenetako bat, desobediencia bidetik, eskubide osoko euskal herritar gisa bizitzen hastea da. Tresnak eskura ditugu, hemen dugu Euskal Herriko Naziotasun Aitormena, hemen EHNA! Egin eta erabili!

Ondarroara joateko autobusak antolatuta dira, eta bertan bazkaldu nahi duen

orok ere autobusean izango ditu txartelak salgai. Bergararik goizeko 09:00etan irtengo gara Ibarrai kalean dagoen geltokitik. Autoetan doazenek, berriz, eskuagarri izango dituzte autobusean apuntatzeko jarritako dauden ohiko tabernetan, Arranon, Pol-Polen eta Kortazarren.

BAI EUSKAL HERRIARI  
Bergara

## Etxebizitzaren eskubideari errespetua

Ordenamendu juridiko ezberdinek Etxebizitza duin eta egokiaz disfrutatzeko eskubidea pertsona orori dago kiola aitortzen badute ere (merkatuaren logikatik at gelditu beharko lukeena), errealitatea oso bestelakoa da. Lehen mailako behar eta eskubide den arren (hezikuntza, osasuna eta elikadura diren lez), gaur egun etxebizitza luxuzko ondare bihurtu da.

Etxebizitza merkatuan espekulazioa nagusitu da, jabe eta promotoreen interes pribatuek arautua dago, eta Botere Publikoek ez dute inola ere betetzen eskubideak bermatzeko duten eginkizuna. Ondorioz, merkatuaren neurri-gabeko prezioak ordain dezaketen hiritarrek urte luzez bere ahalmen ekonomikoa baldintzatzen duten bitartean, beste asko merkatutik kanpo gelditzen dira, eta etxebizitza premia betetzea ezinezkoa dute.

Gaur egun etxebizitza edozein giza-kik bere bizitza garatzeko lehen mailako beharra izatetik edozeinen esku ez dagoen ondare izatera pasatu da. Etxebizitzaren arazo sistema ekonomikoarekin, lan harremanekin... lotuta dago, etxebizitzaren ez da arazo isolatua. Honetaz gain, aztertu beharra dago etxebizitzaren inguruan mugitzen diren interes ezberdinak.

Azken urteetan gizartearen emandako aldaketan ondorioz printzipio eta sinismen berriak hedatu dira. Garapen ekonomikoa eta herrien ongizatea bermatzeko jarraitu beharreko printzipio nagusia lehiakortasuna da. Lan harremanetan, lehiakortasunaren berma behin-behineko kontratuen bidez egiten da.

Etxebizitzaren egungo prezioek pertsona asko etxebizitza beharra bete ezinik gelditzea suposatzen dute; eta era berean, ahalegin handiz etxebizitza ordain dezaketenen epe luze zorra sorrarazten dute. Honek urte luzez erosten ahalmen ekonomikoa mugatua egoitea suposatuko du, diru sarreraren zati handi bat (handiegia askotan) etxebizitza ordaintzeko erabili beharko dutelako.

Orain urte batzuk Babes Ofizialeko etxebizitzak errekurtsio gutxiarekin bizi zirentzat izaten ziren. Orain, ordea, klase ertainei begira eraikitzen dira; tamaina, kalitate eta prestakuntza aldetik hobetu dira, eta prezioak igo badira ere merkatu librekoak bezain onak izanda merkeagoak dira. Horrela, merkatuan dauden etxebizitzak eskuratzeko ahalmen ekonomikoa duten pertsona askok Babes Ofizialekoak eskuratzen ditu; eta honek benetako beharra dutenak inolako babesik gabe uztea suposatzen du.



Ildo honetatik, azken aste hauetan Oñatiko herrian bolo-bolo dabilen Kalegoienako auziaz Ereitten Herri Ekimenak ere bere ikuspegia azaldu nahi du; hainbat eta hainbat oñatiarren ordezkari gisa. Noski, legala izango dela Babes Ofizialeko 16 etxebizitza horiekin burutu duten operazioa (Kooperatiben Legeak babesturik); baina zilegia ote?, etikoa ote? Etxebizitza egun den arazoa kontuan izanik, Etxebiden Oñatin etxebizitza lortzeko 300en bat eskaera dagoenean, ez al da hau guztia adar jotzea? Eta hor ezkutatuta egon daitekeena (hainbat txutxumutxu kalean baitaude), baina ezin dugu na frogatu.

Beraz, aurrera begira honelako operazio eskandalagarrieekin aurki ez gaitzen, neurriak behar dira jarri, aurrez harturikoak, hain zuzen, eta egon daitekeen edozein zirrikitu itxiaz, alde guztien eskuak ongi lotuz, gauzak bide egoki batek bideratuz. Eta honetan guztian instituzio ezberdinek paper oso garrantzitsua dute, hainbat operazio espekulatiboren aurrean beste aldera begiratu dutenak.

Horrexegatik, administrazio ezberdinen politikak aldaketa nabarmena eman behar du, giza interesetan oinarrituz; ez, ordea, interes pribatu zein espekulatiboetan. Horrexegatik, dauden behar errealean arabera administrazio ezberdinen aurrekontuak gehitzeaz gain, behar horren ispluan bihurtu beharko lirake; errekurso publikoak aprobetxatuz, lurraren kudeaketa legeen bidez arautuz, interes pribatuekiko bitartekaritzak aurreztuz, espekulazioa ekidinez, etxebizitza publikoaren promozio zuzenaren aldeko politika martxan jarritz... Era berean, kutxei ere etxebizitzaren arazoa konpontzeko irtenbideak jartzera behartu behar zaie, eskubide honek egun jasaten duen babesik ezagatik aprobetxa ez daitezen.

Gizaki ooren (adina, sexua, arraza, egoera ekonomikoa... kontuan izan barik) oinarritzeko eskubidea den heinean, etxebizitzarena idatzita dagoen eskubide izatetik gauzatzen den eskubide izatera pasatu behar da. Etxebizitzak gizartearen funtzionamendua ahalbidetzen du, eta pertsonen emantzipaziorako, familien garapenerako... funtsezko osagaia da.

Eskubideak bermatzea eta gauzatzea da administrazioaren eginkizunetako bat. Ezinbestekoa da, gainera, etxebizitza lortzeko zailtasun gehien dituzten sektoreei arreta berezia jartzea. Egoera larri hau konpontzen eta espekulazioari mugak jartzen hasteko derrigorrezkoa da herritarren interesean oinarritutako politika bat finkatzea (legedi mailan...). Eta, era berean, hainbat irizpide finkatuz: alokatzeko etxebizitza publikoak eraikiz; etxebizitza hutsen kontrola eramanez; promozio publiko zuzena bultzatuz; egiten den eskaintza beharren arabera izanik... Honetan guztian, administrazioek (udalek, batez ere) esfortzu berezia egin behar lukete.

Idatzi honetan esandakoa errealitate bihurtzeko, gizarte eragile ezberdi-

nekin elkarlana bultzatzea guztiz beharrezkoa da. Indarrak bildu behar ditugu, baldin eta gizarte honen hainbat eredu aldatu nahi baditugu. Honen adibide bat pasa den hilabetean Euskal Herriko 50en bat eragilek publiko eginiko agiria dago, *La vivienda, un derecho vulnerado*, martxan jarri duten kanpaina baten oinarria izango dena.

MARIJO ALTUBE (EREITTEN)  
Oñati

## Pertsonen eskubideen defentsan

Hilero legez, herriko eragile batengana jo dugu, hileko azken egubakoitz honetako elkarretaratzean parte har dezan. Oraingo honetan sindikatuek Euskal Preso Politikoez sufritzen dituzten hainbat egoera salatu nahi izan dituzte.

Inoiz baino une gogorragoak bizi ditugu; izan ere, zazpiehun baino gehiago dira espainiar eta frantziar estatuetako espetxeetan zehar sakabanaturik daudenak, eta hauetako zazpi bakarrik Euskal Herrian. Hau nahikoa ez balitz, beraien bizi baldintzak izugarri okertu direla gogoratu beharra dago.

Horrenbeste urtez espetxean egotea ez dela zigor nahikoa eta, zigor gehigarriak asmatu dituzte bi estatuek beraien espetxe egonaldia askoz ere jasanezina goa izan dadin. Lehenik, sakabanaketa, presoek kolektibo gisa duten indarra zantzeko eta pertsona gisa suntsitzeko asmoz, eta gainera senideen joan-etorriak luzatu eta sufriarazteko. Baina hau gutxi balitz, isolamendua, bakar-tzeak, jipoiak, mehatxuak... Hainbat estrategia asmatu dituzte Euskal Presoen aurka. Estrategia hauen helburuetako bat beraien formazioa eragozteko izan da, etorkizunean lan munduan murgiltzeko ahalik eta oztopo gehien eduki dezaten eta kulturalki eta intelektualki ezereztatuak gera daitezen.

Horren adibide gisa hor daukagu UPV-EHUn ikasteko debekua, isolamenduaren ondorioz, tailer eta ikastaroetan parte hartzeko zailtasunak, ikasteko baliabide ezberdinak edukitzeko debekua (ordenagailua, liburu eta aldizkari konkretuak, praktiketarako tresneria), eta abar.

Honen guztiaren ondorioz, argi ikusten dugu politika honen helburua presoaren etorkizuna baldintzatzea eta izorrratzea dela. Kondena bete eta gero, lan munduan murgiltzeko preso ohiek dituzten arazo sozialez gain espetxeak zigor gehigarri hau ezartzen baitie, lan prestakuntzarik gabe utziz.

Aipatutako zigor hauen amaiera eskatzen dugu, etorkizunean lan eskubide eta baldintza duin batzuk izan ditzaten. Honetaz gain, Amnistia Laborala

lan konbenioetan onartua ikusi arte, borrokan jarraituko dugula argi utzi nahi dugu, presoak espetxeratu aurretik zeukan lanpostua legez mantendu dezan.

Eskerrak eman nahi dizkiegu elkarretaratzea atxiki diren sindikatuei (ESK, ELA eta LAB), eta arrasatear guztiak animatzen ditugu gaur arratsaldeko 19:30ean herriko plazan sindikatuekin batera elkartzera.

ARRASATEKO ETXERAT  
Arrasate

## Etxez etxeko laguntza zerbitzu onenaren alde

Arrasateko Udalak etxeko lagun-atza zerbitzua laster adjudikatuko duela-eta, zerbitzu hori gaur egun eskaintzen duten langileok jakinarazi nahi diegu zeregin honetan lanean diharduten teknikari eta ordezkari politikoei, zerbitzua adjudikatzeko erabilitako puntuen sistemarekin ez gaudela ados.

Ez zaigu iruditzen justua 100 puntutatik 70 puntu ematea, zerbitzua prezio merkeenean eskainiko duenari. Gure ustez, badaude beste kontu batzuk garrantzitsuagoak direnak eta kontuan hartzeak direnak, eta ondorioz, puntu gehiago merezi dutenak. Baina, jakina, Udalarendako garrantzitsuena dirua da. Gure ustez irizpide okerra darabil Udalak.

Honek guztiak garamatza pentsatzera zein garrantzitsuak diren langileak (kasu honetan, bat izan ezik, beste guztiak emakumeak dira) Arrasateko Udalarendako. Uste dugu badela garaia gure lana aintzakotzat hartzeko eta aldi baterako langileak kontratatzeko enpresek baino okerrago tratatzeari uzteko. Gure lanak inoiz ez dira behin betikoak, ordu-tegiak sarritan aldatzen dizkigute, ez daukagu lan hitzarmenik...

Ez duzue uste gure lana ganoraz egiteko dohain batzuk edukitzea beharrezkoa dela? Bada, bai, behar dira, eta batez ere pazientzia handia, uste baino handiagoa behar da. Maitasuna ematen jakin behar da, serioak izan, zintzoak..., eta entzuten jakin behar da. Horrela esanda badirudi erraza dela dohain horiek izatea, baina guztiak ez dira gauza beste pertsona batzuei laguntzeko eta daukaten guttia emateko, eta, are eta gutxiago, inposatu nahi dizkiguzuen baldintzetan.

Zuek badituzue ikasketak, tituluak, soldata bikainak, urteroko igoerekin eta lan hitzarmen ederrekin, baina hala eta guztiz ere, urtetik urtera gehiago nahi duzue, ezta?

Nahikoa da! Etxez etxeko laguntza zerbitzua ez gutxietsi, guztiok erabili beharko dugun zerbitzua delako: lehenengo gure gurasoek eta gero geuk ere bai. Gaur egun zerbitzu hau eskaintzen

lanean diharduen langile kolektibo aintzat har ezazue.

Gizartean zeregin garrantzitsua betetzen dugu. Hortaz, ez daukagu eskubiderik lan hitzarmen justua edukitzeko, Arrasateko beste langileek daukaten moduan? Ez daukagu eskubiderik lan egonkorra- goa eta hobeto ordaindua edukitzeko?

Honengatik guztiagatik eskatzen diegu Arrasateko Udalari kontuan izan dezala zerbitzua adjudikatzerakoan, gure lanpostuei eutsi nahi diegula, soldatak hobetu nahi ditugula, lan hitzarmena ere hobetu nahi dugula..., modu horretan, etxeko etxeko laguntza zerbitzu ahalik eta onena eskaintzeko, arrasatearrek merezi duten moduan.

GOIZ ARGIKO LANGLEAK  
Arrasate

## Iruzurra

Maiatzaren 10ean Eskoriatzako Udalak eta Arlaban-Eskoriatza iparraldeko tarteari dagokion Eibar-Gasteiz autobideko kaltetuek aipatutako proiektuari dagozkion alegazioak osatu genituen.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideetako Sailak alegazio hauek kontuan hartuko zituela eta Udala nahiz kalte-tuen elkarteko kideak jakinaren gainean edukiko zituela agindu zuen.

Kontua da ordutik 15 egun pasa direla eta Foru Aldundiak beti bezala jarraitzen duela. Iritsi zaigun informazio bakarra, akordio posible baten notizia eta alferrikako hitz dotore mordo, komunikabideen bitartez jaso dugu. Baina zoritxarrez zuzenki ez dakigu ezer ere, eta hau gutxi balitz, gure proposamenak lekuan bertan ikertzeko asmorik ere ez dute agertu. Gure alegazioak aztertzen dabilzala esaten digute, baina denbora aurrera doa eta proiektuaren tramitazioekin jarraitzen dute, hemen ezer gertatuko ez balitz bezala.

Harritzekoa den arren, jakina da lanak proiektua guztiz onartu aurretik adjudikatuko direla.

Bitartean Foru Aldundiko topografoek beraien datuak jasotzeko gure lurrak inbaditzen jarraitzen dute. Gainera, Zari-mutz auzoan zuhaitz batzuk ebaki dituzte jabeekin ezertarako kontaktu gabe.

Ekintza hauen guztien aurrean gure desadostasuna eta haserre azaldu eta Foru Aldundiak agertutako jarrera desegokia salatu nahi dugu. Herrialde garatu batean administrazioak era honetan gizarte iruzur egitea onartezina da. Guri behintzat iruzur egin digute.

Badakigu gure proposamenak justuak eta bideragarriak direla. Foru Aldundiak segituan aurrerapausorik ematen ez baldin badu, mobilizazioak egingo ditugu jasotako tratu injustua gizartearen aurrean salatzen.

A-1-EKO ESKORIATZAKO KALTETUAK  
Eskoriatza

# Goienkaria

DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

**ZUZENDARIA**  
Eneko Azkarate  
**ERREDAKZIO KONTSEILUA**  
Edorta Mendietta,  
Miguel Angel Elkoroberezar,  
Josemari Velez de Mendizabal

**ADMINISTRAZIOA**  
Agurtzane Gaintzarain,  
Iratxe Bengoa, Arantzazu Arana  
**SAILETAKO ARDURADUNAK**  
Iñaki Iturbe (Diseinua)  
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

**PUBLIZITATEA**  
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,  
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,  
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano  
**PRODUKZIOA**  
Iban Arantzabal

**TESTUEN ZUZENKETA**  
Sergio Azkarate  
**HARPIDETZA ETA BANAKETA**  
Marta Leturia

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak  
**LEHENDAKARIA**  
Estepan Plazaola  
**ZUZENDARI NAGUSIA**  
Iñazio Arregi

# Denak bikain Zegama-Aizkorriin

Antolatzaileek, parte-hartzaileek eta ikusleek elkarrekin hartu zuten parte domekan

OIHANA ELORZA

**Z**egama-Aizkorri mendi maratoia arrakastatsua izan zen beste behin, hirugarrenez. 333 korrikalarik hartu zuten parte, eta 300ek amaitu zuten. Lehen 11 postuetan lau debagoiendar sailkatu ziren. Proba italiar batek irabazi zuen eta lehen emakumea katalan bat izan zen.

Goizeko lehen orduetan lainoa zegoen ibilbideko hainbat gunetan. Lainoaren lausoak labainkor egin zituen harriak, eta gune batzuk arriskutsu bihurtu zituen. Korrikalari bat baino gehiago lurrera erori zen harri bustien artean labain egin ostean, baina ez zen ezer larririk gertatu. Zauri arinak baino ez zituzten izan.

Zegama-Aizkorri maratoian parte hartzeko korrikalari askok eman zuten izena, baina antolatzaile taldeak 333 onartu zituen. Ia guztiak bukatu zuten proba; 300 heldu ziren helmugara. 40 korrikalari nazioarteko federazioak ekarri zituen. Aurten munduko kopan sartu dute Zegama-Aizkorri maratoia, eta horrek esan nahi du korrikalari batzuk federazioak berak ekartzen dituela. Mendi maratoietan onenak italiarrak eta katalanak omen dira, eta domekako proban baieztatu egin zen uste hori. Zegamako helmugara heldu zen lehen korrikalaria Mario Pelotti italiarra izan zen. Lehen emakumea, berriz, Anna Serra katalana. Bai nazioarteko federazioa



GOIENKARIA

Aizkorriko maratoiak ikusmin handia sortu du aurten eta jende pilo hurbildu zen Aizkorri aldeko belardietara.

## Federazioa eta korrikalariak harrিতa antolaketa eta giroarekin

bai korrikalariak oso gustura gelditu dira antolakuntza lanarekin, eta baita ikusleekin eta ibilbidearekin ere. Askok eskerrak ematen zizkieten ikusleei, ibilbide guz-

## Datorren urtean ere munduko kopan sartzeko eskaera aurkeztuko dute

tian zehar animatzeagatik. Lehen aldiz parte hartu zuten korrikalari asko eta kanpotik etorritakoak harrিতa gelditu ziren antolaketara eta giroarekin.

## Urdanpilleta oñatiarra da Euskal Herriko mendi txapelketako lehena

Datorren urtean ere munduko kopan sartzeko eskaera aurkeztuko dute antolatzaileek. Urte bukaeran jasoko dute erantzuna.



GOIENKARIA

Zuhaitz Ezpeleta, Debagoieneko onena.



GOIENKARIA

Julen Garitano antzuolarra, seigarrena.



GOIENKARIA

Iñaki Pelayo, oñatiarra.



GOIENKARIA

J.M. Martinez, Aretxabaletako onena.

## Kirolabur

### FUTBOLA/DEBAGOIENA

Asteburu honetan jokatu dira Apreferente mailako futboleko azken partidua. Bergarak bakarrik jokatuko du 2003-2004 denboraldiko azken partidua etxean. Gainontzeko hirurek kanpoan jokatuko dute asteburuan: Mondra taldeak Zarautzen jokatuko du, Aloña Mendik Touring aurka jokatuko du, Errenterian, eta Aretxabaletako UDAk, berriz, Hondarribian.

Denboraldia bukatzeko partidu bakarra falta denean, UDA taldea da sailkapen orokorrean ondoen kokatuta dagoen taldea; laugarren postuan dago. Mondra seigarren dago, Aloña Mendi 11. eta Bergara 12.a da. Zortzi punturen aldea dute Bergarak eta UDAk.

### MENDIA/ESKORIATZA

Eskoriatzako I. Zazpi Elizatean Martxa egingo dute domekan. Martxa horrek Mazmela, Zarimutz, Marin, Apotzaga, Gellao, Mendiola eta Bolibar auzoetako elizateetatik pasatuko da. Herriko mendizale talde batek antolatu du ekimena, eta uste dute bost-zortzi ordu bitartean egin daitekeen martxa dela. Lehen aldia denez, antolatzaileek ibilbidea bakarrik antolatu dute. Hori dela eta, nor bere hamarretakoa eraman beharko du. Ibilaldia 07:30ean hasiko da, herriko plazan.

### ZIKLISMOA/OÑATI

Markel Irizarren lagunarteko Markel lehen irteera antolatu du. Domekan izango da, Audioira. Markelek Laudioko Nazioarteko sari nagusia jokatuko du, 175 kilometroko proba. Markelen lagunarteko kideak 07:30ean egin dute irteeraren hitzordua, Olakua auzoko ahateen parean. Bestetik, bihar, zapatuan, gazte mailako 35. Arantzazuko igoera egingo dute, Aloña Mendi elkartereko txirrindularitza sailak antolatuta. Igoera 16:00etan hasiko da, Oñatin, eta Sindikan amaituko da.

### ESKUBALOA/ARRASATE

Igoera faseko azkeneko partidua jokatuko dute domekan (12:30, Iturripen) AGR Arrasate eta Corazonistas taldeek. Azkeneko partidua eta urte osoko garrantzitsuenak, bi taldetako bat Euskadiko Txapelketan izango da eta datorren denboraldian. Lehen ere menderatu zuten Corazonistas arrastearrek.

### ATLETISMOA/BERGARA

Agustin Toledo bergararrak Abontzezko domina ekarri zuen joan den asteburuan Oviedon egin ziren atletismoko Espainiako Txapelketatik. Zapatuan eta domekan izan zituzten probak. Aritz Bikuña bergararrak, berriz, ez zuen zorterik izan, eta denboraldi ona egin arren, ez zuen dominarik lortu Oviedon.

## DEBAGOIENDARRAK SAILKAPEN OROKORREAN

ITURRIA: ANTOLATZAIKAK

2. Zuhaitz Ezpeleta	Arrasate	4:08:46	72. Iker Agirrebaltzategi	Oñati	5:21:24	134. Josu Cascon	Arrasate	5:43:43
5. Asier Urdanpilleta	Oñati	4:19:10	81. Cesar Bastardo	Eskoriatza	5:27:09	139. Xabier Uribesalgo	Bergara	5:46:25
6. Julen Garitano	Antzuola	4:21:58	87. Fernando Uribesalgo	Aretxabaleta	5:27:39	173. Joxe Balentziaga	Bergara	6:02:01
11. Joxe Mendiola	Oñati	4:24:01	89. Jesus Manuel Gomez	Oñati	5:27:47	188. Igor Labaien	Antzuola	6:08:33
25. Argider Isasti	Oñati	4:44:40	92. Iñigo Altuna	Eskoriatza	5:28:30	208. Rosa Lasagabaster	Eskoriatza	6:18:12
39. Joseba Blazquez	Oñati	4:55:56	97. Bartolome Garcia	Eskoriatza	5:28:48	211. Mikel Elkoro	Elgeta	6:18:31
42. Iñaki Pelayo	Oñati	4:57:27	103. Mikel Diaz de Gereñu	Eskoriatza	5:29:33	217. Fernando Rezabal	Oñati	6:21:41
43. Aitor Arrizabalaga	Oñati	4:58:22	106. Jon Aizpeurrutia	Oñati	5:30:32	236. Jose Maria Urzelai	Bergara	6:34:29
60. Joxean Kerexeta	Bergara	5:16:51	107. Joxean Larrea	Oñati	5:30:50	251. Asier Lasa	Eskoriatza	6:40:25
67. Xabier Lijo	Bergara	5:19:37	108. Josu Juan	Arrasate	5:31:10	261. Aitor Biain	Oñati	6:45:50
68. Juan Manuel Martinez	Aretxabaleta	5:20:04	126. Iban Isasti	Oñati	5:38:19	279. Jose Manuel Cot	Bergara	7:03:06

# AURREMATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

## ekainaren 1etik 9ra

### LANBIDE HEZIKETA

heziketa zikloak

#### ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Ibilgailuen elektromekanika
- Kontsumorako ekipo elektronikoak
- Soldadura eta galdaragintza
- Mekanizazioa
- Erizaintzako zaintza osagarriak

#### GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fundizioa eta publimenturgia bidezko produkzioa
- Metal eraikuntzak

zure etorkizunerako  
biderik onena



Etxebarri auzoa z/g  
Tel.: 943 79 79 00  
Faxa: 943 77 09 55  
20550 ARETXABALETA  
ia@iaretxabaleta.com  
www.iaretxabaleta.com

**RENAULT SERVICIOS**

**carrocería rápida**

ARTE ABSTRAKTUA MUSEOETAN DAGO ONDO, EZ ZURE AUTOAN.  
CARROCIERÍA RÁPIDA: KONPONKETAK 24 ORDUEN BARRUAN.

Urradurek, kolpe txikiak, kristal, argi nahiz atzerako ispilu apurtuek ez dute ongi ematen zure autoaren karrozerian. Horregatik, guk 24 orduen barruan konpontzen ditugu, alde zuzeneko hitzordu barik eta unean bertan egindako aurrekontuarekin, idatziz eta konpromiso barik. Eta hala ez bada, ordezko ibilgailu bat doan.

**Renault Servicios. Gelditu ez zaitez mugitzen gara.**

Buruan baduzu, hemen duzu. [www.renault.es](http://www.renault.es)

Pieza de Origen **Renault**  
Espíritu Renault

RENAULT recomienda **eif**

**RENAULT**  
**AUTOBERRI**  
S. Andres auzoa, 8. • Tel. 943 71 24 72  
**ARRASATE**



## Añai erretegia

- Eskaintza** **Iardeaga 32 / ARAMAIO**  
945 44 51 01
- Bataio eta jaunartzeak
  - Kintadak
  - Karta
- Berezitasunak**
- Arraina eta okela parrillan
  - Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik



## Baster-Alde

- Eskaintza** **Galartza auzoa / ARETXABALETA**  
943 79 24 58
- Menua eta karta
  - Ezkontzak
  - Jangela: 160 lagunendako
  - Jaunartze eta bataioak
  - Kintadak
  - Terraza
  - Aparkalekua
- Astelehenetan itxita**



## Gure Ametsa jatetxea

- Eskaintza** **LEINTZ GATZAGA**  
943 71 49 52
- Ezkontzak
  - Jaunartzeak eta bataioak
  - Hiru jangela
  - Aparkaleku handia
  - Umeendako jolaslekua
- Astelehenetan itxita**



## Pildain jatetxea

- Eskaintza** **Udala auzoa 14 / ARRASATE**  
943 79 11 65 / 943 77 18 40
- Eguneko menua
  - Lagun arteko afariak
  - Bataio eta jaunartzeak
  - Ogitartekoak eta kazuelatxoak
- Berezitasunak**
- Bildotsa labean erreta
  - Arraina
  - Babarrunak
  - Etxean egindako ogia




## Torrekoa jatetxea

- Eskaintza** **Ibargarai 37 / BERGARA**  
943 76 50 99
- Eguneko menua
  - Karta
  - Kintadak
  - Bataio eta jaunartzeak
- Berezitasunak**
- Batik bat arraina
  - Itsaskia
  - Txuletak



## Unzueta jatetxea

- Eskaintza** **Zabola auzoa / ARAMAIO**  
945 44 50 95
- Eguneko menua
  - Karta
  - Bataio eta jaunartzeak
  - Lagun afariak
- Berezitasunak**
- Parrilla: okela eta arraina
  - Etxeko postreak
- Egunero zabalik**



## Zotz jatetxea

- Eskaintza** **Zubillaga auzoa 1 / OÑATI**  
943 78 35 45
- Eguneko menua
  - Ogitartekoak
  - Hamarretakoak
- Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan
- Igandeetan itxita**



## Zuhaitzi jatetxea

- Eskaintza** **Espoloia 6 / BERGARA**  
943 76 59 22
- Eguneko menua, aste barruan
  - Pizzak, konbinatuak eta karta egubakoitz eta zapatu gauetan
- Berezitasunak**
- Etxeko postreak

# JAIIAK

Egubakoitza / 2004ko maiatzaren 28a / PAZKOAK BERGARAN 2004 / GOIENKARIAren gehigarri berezia



## PAZKOAK BERGARAN

AZALA: IMANOL SORIANO / JATORRIZKO ARGAZKIA: ANDER GILLENEA

### TRADITION

Ibargarai 43 • 20570 BERGARA • Tel. 943 76 22 48

### DIFFUSION QUICK SERVICE

Magdalena 16 • 01008 GASTEIZ • Tel. 945 13 47 26

### DIFFUSION

Garbera ztro. kom., Garbera 1- 23 aretoa  
20017 DONOSTIA • Tel. 943 39 45 86

### DIFFUSION

Urbil ztro. kom., Asteasuain polig. (Txikiardi) - B7 aret.  
20170 USURBIL • Tel. 943 36 08 17

### DIFFUSION

Lakua ztro. kom., Wellington Dukea 6A - 05 aretoa  
01010 GASTEIZ • Tel. 945 17 91 50

*Love is in the Hair*  
**Jean Louis David**

Ondo pasau jaxetan!



## ■ MUSIKA

# Rocka, entzuteko doinu lasaiak eta DJak, aukeran

LEIRE KORTABARRIA

**H**ainbat musika estilorekin gozatzeko aukera izango dugu. Udalak, Herri Mugimenduak eta Jam aretoak antolatuta. Ibarreko zein kanpoko taldeek joko dute jaietan.

Musika izango da jaietako protagonista bat, hainbat antolatzailereren eskutik.

Mende laurden bete dutela eta, Aritzeta abesbatzaren omenezko kontzertua izango da. Horrez gain, Espoioiko eta Herriko Plazako dantzaldi lasaiak zein kalejirak izango dira aukeran.

Herri Mugimenduak hiru kontzertu antolatu ditu txosnen gunean eta gaztetxean, egubakoitz, domeka eta astelehenerako. Rocka eta DJak izango dira nagusi.

Jam aretoan ere gauero izango da emanaldi bat; Fito y Fitipaldis taldearenak piztu du ikusmin handien.

Horrez gain, musika lagun izango da beste ekitaldi askotan, herriko eta kanpoko musika taldeei esker. Trikitia, dultzainak, txarangaren doinu alaiak... bazter guztietan izango ditugu.



## ARITZETA ABESBATZAREN 25. URTEURRENEKO KONTZERTUA

**A**ritzeta abesbatza bergararrak 25 urte bete ditu, eta herriko jaiak baino aukera hoberik ez euren omenezko kontzertu berezi baterako. Egubakoitzean, hilak 28, izango da, Udal Pilotalekuan, 22:30ean, eta herriko eta inguruko musika talde eta abesbatza onenatariko batzuek parte hartuko dute. Hain zuzen, Ezoziko abesbatzak (Soraluze), Sostoa abesbatzak (Eibar), Bergarako Orfeoia, Bergarako Orkestra Sinfonikoak, Gabero abesbatzak, Alai taldeak eta Aritzetak esku hartuko dute. Kontzertuak bi zati izango ditu: lehenengoan, Alai eta Aritzeta taldeek emanaldi bana egingo dute; bigarrenean, abesbatza guztiek saio bateratua eskainiko dute. Xabier Olabarría, Alfredo Gonzalez Chirlaque eta Imanol Urtzelai arituko dira zuzendari lanetan.

Rock-and-roll gaua antolatu du Herri Mugimenduak egubakoitzean, gaztetxean

Fito y Fitipaldis taldeak diskoa aurkeztuko du egubakoitzean, Jam aretoan

Aritzeta omenezko saioan Debarroko taldeek esku hartuko dute

Mexikoko mariachi batek kalejira eta kontzertua eskainiko ditu astelehenean



## ROCK TALDEEN ETA DJ-EN EMANALDIK

**R**ock kontzertuak egongo dira gaztetxean eta txosnagunean, Udalak eta Herri Mugimenduak antolatuta. Egubakoitzean, hilak 28, Valhalla, Red Wine, Legen Beltza eta Dolce Vita taldeek joko dute Bideberrin, 00:00etan; gaztetxean, 00:30ean, Drakess, Pateando Porkeria, Sin Oficio ni Beneficio taldeen eta DJ Belas-en emanaldia izango da. Zapatuan, 29, Non Servium, Ostiada Oi!, Ketchoop eta Trapatoni taldeen kontzertua izango da Bideberrin. Domekan, 30, Brigada Criminal, Elebators eta Cool Panic (argazkian) taldeek joko dute txosnetan, 23:00etan; eta astelehenean, ekainak 1, DJ festa izango da gaztetxean, gauerdian.



## HIRU EMANALDI JAM ARETOAN

**J**am aretora hurbiltzen direnek hiru emanaldirekin gozatzeko modua izango dute. Gaur, egubakoitza, hilak 28, ikusmin handia piztu duen kontzertua izango da: hain zuzen, Fito y Fitipaldis taldeak *Lo más lejos, a tu lado* diskoa aurkeztuko du, 22:00etan. Emanaldi hori jendearen eskaera dela eta antolatu behar izan dute. Bestalde, bihar, hilak 29, Rumenige, Thomas P. Heckmann, Mathias Schaffhauser eta beste hainbat disko jartzailek mugiaraziko gaituzte 00:00etan. Azkenik, domekan, hilak 30, Anathema (argazkian) rock gotiko estiloa lantzen duen taldeak *A natural disaster* euren zazpigarren lana aurkeztuko du, 21:00etan.



## MARIACHIA, BANDA, ETA BESTE HAINBAT

**M**exikoko doinuek harrera bikaina izan ohi dute jaietan. Bergarara Garibaldi mariachia etorriko da astelehenean, ekainak 1. Kalejira egingo dute 11:30ean, eta Espoioian emanaldia, segidan. Horrez gain, dantzaldiak egongo dira honako egun eta orduotan: zapatuan, maiatzak 29, Tarantella taldeak joko du Herriko Plazan, 23:30ean; leku berean, domekan, 30, Joselu Anaiek egingo dute emanaldia, 23:00etan; astelehenean, 31, Nueva Etaparekin dantzaldia, Espoioian, 23:00etan; eta martitzenean, ekainak 1, Egan taldearen saioa Herriko Plazan, 22:30ean. Musika Bandak emanaldia egingo du hilaren 30ean, eguerdian, Espoioian.

■ PILOTA JAIALDIAK

# Lau pilota jaialdi egingo dira Bergarako Pazkoetan

OIHANA ELORZA

**Z**apatuan, domekan eta martitzenean egingo dira Pazkoetako pilota jaialdiak. Partiduak Udal Pilotalekuan izango dira; zortzi partidu, guztira. Bergara Hiria pilota txapelketako finala, berriz, astelehenean jokatu da.

Aurten, profesional mailako hiru pilota jaialdi egingo dira Bergarako Pazko jaietan. Ez da Mendekoste Feria txapelketarik egingo, baina bai pilota partiduak.

Zapatutik martitzenera bitartean, egunero egingo dira pilota partiduak Bergarako Udal Pilotalekuan. Astelehenean, esaterako, Bergara Hiria pilota txapelketako finalak jokatu dira. Zapatuan, domekan eta martitzenean, berriz, profesional mailako pilotariak izango dira. Beraz, profesional mailako hiru pilota jaialdi egingo dira aurreko Pazko jaietan. Hiru jaialdiak Udal Pilotalekuan izango dira, eta bakoitza enpresa batek antolatuko du. Zapatuko partidua, esaterako, Asegarcek antolatu du, domekakoa Frontis enpresak eta martitzenekoa, berriz, Aspek.

## BELOKI ANIAK ETA LARRAIA

Lehen mailako pilotariak jokatu dituzte jaietako pilota partidu gehienak. Profesional mailako hiru jaialdietan, zortzi partidu jokatu dituzte.

Zapaturako antolatutako partiduetan, adibidez, Tirapu eta Beginok Bengoetxea VI.a eta Pinedoren aurka jokatu beharok dute; Arbizu eta Mendiluzek, Azpiroz eta Bengoetxea V.aren aurka; eta hirugarren partiduan, Olaizola I.a eta Peñagarikano Beloki anaien kontra arituko dira. Partidu horretan, Beloki anaiak, Alberto eta Ruben, bikote izango dira.

Domekako partidua, berriz, Frontis enpresak antolatu du. Inaxio Errandoneak zuzentzen duen enpresa horrek Badiola III.a eta Elola Larraia eta Mendiaren aurka jarriko ditu partidu batean. Larraiak, hil honetan bertan, maiatzean, sinatu du Frontis enpresarekin; bi urterako sinatu dute, hain zuzen ere. Bigarrenean, aldiz, Alustiza eta Gorriti Barberito VI.a eta Arretxeren kontra arituko dira.

Martitzenean egingo da profesional mailako hirugarren



ANADER GILLENEA

Aurten ez da Pentekoste Feria txapelketarik egingo, baina hamar pilota partidu jokatu dira Udal pilotalekuan.

pilota jaialdia Bergarako Udal Pilotalekuan. Kasu horretan, Aspe enpresak antolatutako partiduak izango dira.

## ETXANIZ, ZEZEAGA, BERRAONDO

Martitzeneko jaialdian, Titin III.ak eta Goñi III.ak Gonzalez eta Barriolaren aurka jokatu

dute, arratsaldeko partidu nagusian. Baina beste bi partidu ere izango dira, eta Bergara eta Antzuolako pilotariak hartuko dute parte, gainera. Partidu batean, esaterako, Etxaniz eta Zezeagak elkarrekin jokatu dute, Capellan eta Arroyo II.aren aurka. Aspek antolatutako hiruga-

ren partiduan, berriz, Aritz Berraondo antzuolarrak Laskurainekin batera jokatu du Berna eta Chafeeren kontra.

Zapatuko eta domekako jaialdiak 17:00etan hasiko dira eta martitzenekoa, 16:30ean. Bergara Hiria txapelketako finala, berriz, 19:30ean, astelehenean.

## BERGARA HIRIA TXAPELKETAKO FINALAK

**U**rtetan egiten da Bergara Hiria pilota txapelketa. Aurtengoa, bederatzigarrena da, zehazki. Joan den apirilean hasi zen aurtengo txapelketa. Bertan, nagusien mailan 10 bikotek hartu dute parte eta gazteen mailan, berriz, zortzik.

Apirilaren erdi ingurutik hona, eta hainbat partiduren ostean, lau bikote heldu dira txapelketako finalera; bi bikote maila bakoitzeko. 22 urtez azpikoetan, Olazabal-Betelu bikoteak Etxeberria-Izaren aurka jokatu du. Nagusien mailan, aldiz, Gutierrez eta Huizik Erroizenea eta Argote izango dituzte aurrez aurre. Aurreko urteotan, Bergarako jaietan pilotari profesionalak egoten zirelako ez zen jaietan egiten finala. Aurten, aldiz, astelehenean jokatu da. Lehen aldiz izango da Bergara Hiria pilota txapelketa Mendekoste jaietako astelehenean jokatzeko dena. Beraz, aurtengo Bergara Hiria pilota txapelketako finala maiatzaren 31n jokatu da, 19:30ean, Udal Pilotalekuan.

## ASEGARCEK ANTOLATUA

Zapata, 29, 17:00  
Udal Pilotalekua

Tirapu-Begino  
Bengoetxea VI.a-Pinedo  
•  
Olaizola I.a-Peñagarikano  
Beloki II.a-Beloki  
•  
Arbizu-Mendiluze  
Azpiroz-Bengoetxea V.a

## FRONTISEK ANTOLATUA

Domeka, 30, 17:00  
Udal Pilotalekua

Badiola III.a-Elola  
Larraia-Mendia  
•  
Alustiza-Gorriti  
Barberito VI.a-Arretxe

## BERGARA HIRIA

Astelehena, 31, 19:30  
Udal Pilotalekua

Olazabal-Betelu  
Etxeberria-Iza  
•  
Huizi-Gutierrez  
Erroizenea-Argote

## ASPEK

Martitzena, 1, 16:30  
Udal Pilotalekua

Etxaniz-Zezeaga  
Capellan-Arroyo II  
•  
Titin III.a-Goñi III.a  
Gonzalez-Barriola  
•  
Berraondo-Laskurain  
Berna-Chafee

**Asegarce, Frontis eta Aspek jaialdi bana antolatu dute Bergarako Pazko jaietarako**

## PILOTARI PROFESIONALAK BERGARAN, BERRIRO

**B**ergarako Udal Pilotalekuan pilota partidu asko antolatzen ziren garai batean. Arrazoi bategatik edo besteagatik, ordea, Eibarko Astelena, Donostiako Atano III.a, Gasteizko Ogeta edo Iruñeko Labrit pilotalekuetara banatu dira Bergarako partiduak. Azkenaldian, urteko egun seinatu batzuetan baino ez dira pilota partiduak antolatzen Bergaran, Erramu-zapatu egunean eta Urteberri egunean, besteak beste. Pilota partiduez gain, Mendekoste Feria txapelketa ere antolatzen zuten lehen, eta puntan zebiltzan pilotari asko etortzen ziren. Joan den urtean, jaialdi bakarra antolatu zuten, eta aurten, berriz, hiru jaialdi antolatu dituzte, lehen mailako zortzi partidu, guztira.

Bergara Hiria txapelketarekin batera, lau pilota jardunaldi egingo dituzte aurtengo jaietan. Profesional mailako hiru jaialdiak, Asegarce, Frontis eta Aspe enpresek antolatu dituzte. Hirurak Udal Pilotalekuan izango dira, 17:00etan zapatu eta domekan, eta 16:30ean martitzenean.

# JAIETAKO E

## Egubakoitza 28

**19:30** BATUKADA egingo dute gaztetxetik txosna-gunera, Herri Mugimenduak antolatuta.

**20:00** Jaiak hasiko dira etxafuego jaurtiketarekin eta BITORIANATXOren JAITSIERAekin, San Martin plazan.

Segidan Udal Musika Bandaren KALEJIRA, hiriguneko kaleetan. Iluntzean Matxiategin BARRAKAK irekiko dira, eta Bideberri, berriz, TXOSNAK.

**20:30-21:30** Jarduneko TRIKILARIEN KALEJIRA.

**20:30** TXOSNA IGOERA egingo dute: txalapartariak, bertsolariak, etxafuegoak eta pregoia izango dira.

**22:00** FITO Y FITIPALDIS taldeak emanaldia egingo du Jam aretoan.

**22:30** Aritzeta abesbatzaren 25. urteurrenaren KONTZERTUA Udal Pilotalekuan.

Parte-hartzaileak: Ezoziko abesbatza (Soraluze), Sostoa (Eibar), Bergarako Orfeoia,

Begarako Orkestra Sinfonikoa, Gabero abesbatza, Alai taldea eta Aritzeta abesbatza.

**22:30** DROGA ANALISIAK egingo ditu Ailaket taldeak, gaztetxean.

**00:30** ROCK-AND-ROLL GAUA izango da gaztetxean, Drakess, Pateando Porkeria eta Sin Oficio ni Beneficio taldeen eskutik. Gero, DANTZARAKO DOINUAK, DJ Belasen emanaldiarekin.

## Zapatua 29

**09:00** 23. Haur eta Gazteen Plastika Sariaketa. Beart taldeak antolatuta.

**10:00** DIANA

Bolutik Kobok dultzaineroak irtengo dira; Labegaraietatik, Udal Txistulari Banda. Oxirondotik, Kobok dultzaina jotzaileak;

Labegaraietatik, Josu eta Jokin soinu jotzaileak.

Herriko Plazan elkartuko dira guztiak, eta Mizpirualdera ere egingo dute bisita.

**11:30** Herriko elkarten arteko BAKAILAO LEHIAKETA. San Martin. Lehiakideek lanean diharduten bitartean, trikitilariak plaza alaituko dute.

**13:00** Haur eta gazteen PLASTIKA SARIKETA SARI BANAKETA, Beart elkartearen egoitzan (Bolu kalea 49).

**17:45** Haurtzako BONBA JAPONIARRAK San Martin plazan.

**18:00** TRIKI-POTEOA izango da gaztetxetik txosna-gunera.

**18:00** MURAL ERAKUSKETA egingo du Herri Mugimenduko talde bakoitzak txosnen gunean (Euskal Herrian Euskaraz, Txapa Irratia, Gazte Asanblada, Presoen Lagunak, Segi, Ikasle Abertzaleak, AEK, Bai Euskal Herriari, *Astindu* eta Batasuna).

**18:30** Bergarako eta Hondarribiako ERRALDOIEN, KILIKIEN ETA BURUHANDIEN KONPARTSAREN KALEJIRA, Bergarako Udal Txistulari Bandak eta Kobok dultzaineroek lagunduta. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta kalea, Ramon Maria Lili kalea, Ibargarai hiribidea, Fraiskozuri plaza,

Irizar pasealekua, Barrenkalea eta San Martin plaza.

**19:30** ERREKORTADOREEN EUSKADIKO V. TXAPELKETA, zezen-plazan. Ekitaldia Elgoibarko dultzaineroek girotuko dute.

**20:00** ELEKTROTUNA TALDEA, Bergarako kaleetan zehar.

**22:30** DANTZALDIA San Martin plazan, Tarantella Orkestrarekin.

**00:00** HAINBAT DJ-ren emanaldia Jam aretoan.

**04:00** DJ BULL disko jartzaileak emanaldia egingo du txosnetan.

## Domeka 30

**08:00** SOKAMUTURRA San Martin plazan, Elgoibarko dultzaineroek animatuta.

Ondoren, Elgoibarko dultzaineroen KALEJIRA, San Martin plazatik zezen-plazara.

**09:00** Lehen ENTZIERROA. Ibilbidea: Gaspar jatetxeko garajetik irten, Barrenkalea, Bidekurutzeta,

San Martin plaza, Ramon Maria Lili kalea eta zezen-plaza. Segidan ENBOLATUAK.

**09:15** ALBORADA, Udal Txistulari Bandarekin.

**10:00** 69. Mendekoste Saria

TXIRRINDULARI LASTERKETA, 23 urtez azpikoentzat eta elite mailakoentzat, Lokatza Ziklismo Eskolak antolatuta. Lehendakari txapelketarako puntuagarria.

Irteera San Lorenzo auzotik.

**11:00** MEZA NAGUSIA San Pedro parrokian. Udal Txistulari Bandak korporazioari lagunduko diote mezataraino.

**11:30** 27. EUSKADIKO DANTZA TXAPELKETAren kanporaketak, San Martin plazan, hamabost urtez azpiko bikote gazteentzako.

**12:00** Udal Musika Bandaren KONTZERTUA Espoioan.

*Egitaraua:*

*Añoranza.* (A. Gz. Chirlaque)  
*Poeta y aldeano.* (Fr. Von Suppé)  
*El Caserío.* (J. Guriadi)  
*Noah's Ark.* (B. Appermont)  
*La Dolores.* Jota handia



### ONGI ETORRI, BITORIANATXO!

Jai hasiera ekitaldia bera ikusgarria izaten da. Bitorianatxo jaitziko dute Herriko Plazara. Segidan, barrakak eta txosnak zabalik geratuko dira.

**Non:** Herriko Plazan  
**Noiz:** egubakoitza, 28 / 20:00



### BAKAILAO LEHIAKETA

Begarako gastronomia elkarteetako sukaldari bikoteak lehiari ibiliko dira, ea zeinek bakailao goxoa prestatu. Gero, jateko aukera izango da.

**Non:** Herriko Plazan  
**Noiz:** zapatua, 29 / 11:30



### ERREKORTADORE ONENAK

Euskadiko errekortadore onenak lehiatuko dira; tartean Iker Agirre eta Unai Arana bergararrak. Zezen-jaiak ahaztu gabe, jakina!

**Non:** Zezen-plazan  
**Noiz:** zapatua, 29 / 19:30



### JOLASPARKEA ZABALDUKO DUTE

Umeendako jolasparkea izango da: puzgarriak eta denetariko jolasak izango dituzte. Bestalde, euren jolasak izango dira zezen-plazan.

**Non:** Jolasparkea, Ipintza II-ko patioan  
**Noiz:** astelehena, 31 / 11:30, 17:00



Jai zoriontsuak guztioi!



**URBIETA**  
zeramikak eta bainuak  
PORCELANOSAKo banatzaile ofiziala

• Helbarrituentzako bainu erreformak eta osagarri bereziak (erakusketa eta salmenta)



GREMIOEN KOORDINAZIOA

ITURGINTZA

Erakusketa: Ibargarai 11-13 • Tel./Faxa: 943 76 14 50



# GITARRAUA

*Bergarako ereserkia.* (A. Gz. Chirlaque)

Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque

**13:30** Elgoibarko dultzaineroen KALEJIRA.

**17:15** ZEZEN-PLAZARAINO KALEJIRA, San Martin plazatik irtenda, Zumarragako bandak eta Elgoibarko dultzaineroek lagunduta.

**17:30** 27.EUSKADIKO DANTZA TXAPELKETA San Martin plazan (hamabost urtez azpikoentzako).

Udal Txistulari Bandak eta trikitilariak lagunduko dute.

**18:00** ZEZEN FESTA, Salamancako Lopez Chavesen ganaduekin, Betizu zezen-zaleen elkarteak antolatuta.

Nobilleroak: Jabier Anton eta Jose Jabier Exposito nafarrak, Daniel Cuevas zaragozarrak, Iban Abasolo orduñarra eta sobresaliente moduan Ander Alvarez, bergarra.

Burtzikaria: Igor Etxaniz *Kinttela* azpeitiarra. Zumarragako Musika Bandak eta Elgoibarko dultzaineroek joko dute.

**21:00** ANATEMA eta AUTUMNAL taldeen emanaldia Jam aretoan.

**23:00** Brigada Criminal, Elebators eta Cool Panic taldeen

KONTZERTUA txosna-gunean.

**23:00** Joselu Anaiak taldearekin San Martin plazan.

## Astelehena 31

**09:00** Bigarren ENTZIERROA.

Ibilbidea: Gaspar jatetxeko garajetik irten, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili kalea eta zezen-plaza.

Segidan BIGANTXAK zezen-plazan, Los Incansables txarangakoek alaituta.

**10:30** PLATER TIRAKETA, Ollagorria elkarteak antolatuta, Gorko lrubide zelaian.

**11:30** Mariachi Garibaldi taldearen KALEJIRA Bergarako kaleetan.

**11:30-13:30** Ipintza II-ko patioan HAURRENTZAKO JOLASPARKEA, gaztelu puzgarriekin eta beste hainbat jokorekin.

**12:00** BERMUTH KONTZERTUA Espoloian Mariachi Garibaldi.

**17:00-20:00** HAURRENTZAKO

JOLASPARKEA Ipintza II-n.

**18:00** BALSA JAITSIERA egingo dute Algodonerako zubitik Bideberrira. Segidan, SARI BANAKETA ekitaldia izango da txosna gunean.

**18:00** HAURRENTZAKO JOLASAK zezen-plazan, Manzarbeitia ganadutegiko zezentxoekin eta *poney*-ekin. Los Incansables txarangak joko du.

**19:30** BERTSO POTEOA izango da Xabier Silveira, Fredi Paia eta Jokin Uranga bertsolariekin, txosnen gunetik gaztetxera.

**22:30** KONTZERTUA

Bideberrin, *Pin Pan Pun band*, *Arima Beltza*, *N.C.M.* eta *Supercools* taldeekin.

**23:30** Nueva Etapa taldearekin DANTZALDIA Espoloian.

**18:00** Umeendako JOLASAK zezen-plazan, Los Incansables txarangak lagunduta.

**22:30** ROCK KONTZERTUA

Bideberrin: Sorkun, Kokein, Eraso, Destruccion eta Goiko rock.

**23:00** Tarantella orkestrarekin

DANTZALDIA Espoloian.

**00:00** DJ GAUA gaztetxean.

## Martitzena 1

**09:00** Hirugarren ENTZIERROA.

Ibilbidea: Gaspar jatetxeko garajetik irten, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili kalea eta zezen-plaza. Segidan ENBOLATUAK. Los Incansables txaranga zezen-plaza girotzen.

**11:00-20:00** Mendekoste jaietako kartel lehiaketara aurkeztutako KARTELEN ERAKUSKETA, udaletxeko arkupeetan.

**11:30** Xafre eta Zaharra, eta losu eta lokin trikitilariak KALEJIRA.

**11:30-13:30** HERRI TRENArekin txango turistikoa egiteko aukera, Fraiskozuri plazatik irtenda.

**12:30** HERRI KIROLAN ERAKUSTALDIA, San Martin plazan. Inazio eta Iñaki Perurena aita-semeak harri-jasotzen eta Fausto, Aratz eta Ugaitz Mugerza

aita-semeak aizkoran. Aurkezle lanak Gabixolak egingo ditu.

**13:00** TRIKIPOTEOA, Xapre eta Zaharra, eta losu eta lokin trikitilariak, San Martin plazatik hasita.

**14:30** HERRI BAZKARIA San Martin plazan. Antolatzaileak: Jardun elkarte eta Xamatx dantza taldea. (Euria eginez gero

Seminarioko patio estalian izango da).

**16:00** Bazkaldoan KOADRILEN ARTEKO JOKOAK, Iraunkorrek txarangak alaituta.

**16:30** PILOTA PARTIDUAK Udal Pilotalekuan.

**17:00-20:00** HERRI TRENArekin txango turistikoa egiteko aukera, Fraiskozuri plazatik irtenda.

**18:00** Herriko koadrilentzako ZESENTXOekin JOLASAK, zezen-plazan. Ondoren, KALEJIRA Los Incansables txarangarekin.

**20:00-21:00 eta 22:30etik aurrera** DANTZALDIA Egan taldea San Martin plazan.

**24:00** Bitorianatxoren igoserarekin, MENDEKOSTE JAIEN AMAIERA.



### PILOTA PARTIDU INTERESGARRIAK

Asegarce, Frontis eta Aspe enpresek antolatutako pilota partiduak jokatu dira. Olaizola I, Beloki, Barriola, Titin III eta beste batzuk etorriko dira.

**Non:** Udal Pilotalekuan

**Noiz:** 29an, 30ean eta 31n / 17:00



### HERRI MUGIMENDUAREN EKINTZAK

Aurtengo jaietako berrikuntza bat da herriko hainbat taldek bat egin dutela Herri Mugimenduan, eta guztiak egitarau bateratua osatu dutela; esaterako, gaztetxeak bere kasa antolatzen zituen ekintzak, aurtun, egitarau horren barne daude. Txosna-gunean zein gaztetxean eskainiko diren kontzertuak Herri Mugimenduak antolatu ditu. Hilaren 28an, 30ean eta 31n, gauero, kontzertuak egongo dira txosna-gunean zein gaztetxean: egubakoitzean, rock-and-roll gaua eta DJ festa izango dira gaztetxean; domekan, beste hiru talderen emanaldia, txosna-gunean; eta 31n, astelehena, bigarren DJ festa bat. Horiez gain, txosna igotza, mural erakusketa, 24 orduko karpaz zerbitzua, bertso-poteoa... antolatu dituzte.

**Non:** gaztetxean eta txosna-gunean

**Noiz:** 28an, 30ean eta 31n, kontzertuak




### HERRI TRENEAN, TURISMOA

Herri trenean igota, 2-3 orduko txango turistikoa egiteko aukera izango dugu Bergaran. Ibarreko jaietan gero eta maizago antolatzen da herri trenea.

**Non:** Fraiskozuri plazatik irteera

**Noiz:** martitzena, 1 / 11:10 eta 17:00



*Jai zoriontsuak herritar guztioi!*

## ■ ZEZENAK ETA ZEKORRAK

# Ander Alvarez toreatzaileak herrian egingo du debuta

OIHANA ELORZA

**B**este behin, zezen festa izango da Bergarako jaietan. Aspaldiko partez, sokamuturra egingo da, eta horrez gain, urteroko zezenketa eta errektadore txapelketa. Domekako zezenketan, Ander Alvarez bergarra arituko da.

Urtero hartzen dute parte zezenek Bergarako Mendekoste jaietan. Baita aurten ere. Domekan egingo da zezenketa, 18:00etan, eta toreatzaileen artean, Ander Alvarez bergarra egongo da. Traje distiratsua lehen aldiz domekan jantziko du Anderrek. Herrian bertan egingo du debuta. Ander Alvarezekin batera, Jabier Anton eta Jose Jabier Exposito nafarrak, Daniel Cuevas zaragozarrak eta Iban Abasolo orduñarra arituko dira zezenen aurrean.

Berez, Ander aipagarri moduan egongo da, hau da, ordeko moduan, baina hala ere, arratsaldeko bost zezenetatik lau izango ditu berak ere aurrez aurre. Lau zezen horien aurrean *pase* batzuk egingo ditu Ander Alvarez gazteak, eta traje distiratsua estreinatuko du, horrela. Izan ere, debuta egingo du Anderrek domekan.

## BERGARAKO TOREATZAILEA

Bergarakoa da Ander Alvarez, eta 18 urte ditu. Gaztea da, eta txikitatik gustatzen zaizkio zezenak. Bere aitona Salamancakoa da jaiotzez, eta hark piztu zion zaletasuna. Ondoren, Donostiako La Paz zezen eskolara eramateko esan zion aitari behin eta berriz, aita aspertu arte, eta 13 urte zituela hasi zen han. Hiru urte egin zituen Donostian, eta azken bi

urte hauetan, Jesus Matias da bere apoderatua. Zaila dela onartu arren, toreatzailea izan nahi du Anderrek etorkizunean. Hala ere, ona izateaz gain, dirua ere behar dela dio berak.

*El Juli* eta bere antzekoen tremendismoa ez du gustuko Anderrek, banderillak belauniko jartzeara eta horrelakoak egitea. Nahiago du zutik, mantso eta zezena ondo eramaten txuliatu. Besteak beste, Enrique Ponce, Javier Conde eta Manzanarezen estiloarekin gehiago identifikatzen da.

Astelehenetan eta eguenetan etxean entrenatzen da Ander; etxeko ganbaran, aretoko toreatza egiten du. Martitzenetan, eguaztenetan eta egubakoitzean gimnasia eta korrika egiten du, eta aste bukaeran, Donostiara joaten da, Ilunbera, Matias apoderatuarekin batera entrenatzea.

Orain arte, txekorrek txuliatu ditu Anderrek, baina nobille-ro bezala lehendabiziko aldian izango da domekan. Etzi, traje distiratsua jantziko du, artezko toreatzailea, purua atsegin duelako. Domekarako urduri dagoe-la aitortu du Anderrek, baina ondo prestatuta dago gaztea, eta *faena* bikaina egiteko gogoz dago.

## SALAMANCAKO ZEZENAK

Domekako zezenketarako, Salamancatik ekarriko dituzte zezenak, Ledesma herriko Lopez Chaves ganadutegitik, hain zuzen ere, Calzadilla del Campo finkatik. Guztira sei zezen ekarriko dituzte, eta bakoitzak 450 kilo inguru izango ditu. Zezenketan, aldiz, bost zezen aterako dituzte, seigarrena erreserbarako da.

Duela astebete inguru jarri zuten zezen-plaza Bergaran. Aurreko urteotako toki berean eraiki dute, autobus geltoki nagusiaren parean. Bizkaiko Orozko herritik

ekartzen dute zezen-plaza, eta Bergararik Elgoibarrera lehenengo eta Arrasatera ondoren eramaten dute, San Juan jaietara. Behin-behineko zezen-plaza honetan, 1.500 lagun sartzen dira. Sarrerak salgai daude, eta jende asko biltzea espero dute antolatzaileek.

Jendeaz eta toreatzaileez gain, burtzikaria ere egongo da domekako zezenketan: Igor Etxaniz *Kinttela* izango da burtzikaria, azpeitiarra. Bestalde, musika ere egongo da zezen-plazan. Elgoibarko dultzaineroek eta Debako musika bandak

girotuko dute arratsaldeko ekitaldia.

Aurtengo Pazko jaietako zezen ekitaldiak Betizu zezen-zaleen taldeak antolatu ditu. Zezenketaz gain, errektadoreen txapelketa eta ia egunero egongo diren entzierroak, besteak beste.

**Lehenengo aldiz jantziko du traje distiratsua Ander Alvarezek, domekan**

**Zezenketarako, 450 kilo inguruko sei zezen ekarriko dituzte Salamancatik**

**Zezenketa, entzierroak eta errektadoreak antolatu ditu Betizu elkarteak**



Aste barruan Bergaran eta asteburuan Donostiako Ilunbe zezen-plazan entrenatzen da Ander Alvarez bergarra.

GOIENKARIA

## SOKAMUTURRA, ASPALDIKO PARTEZ

**D**omekan, maiatzaren 30ean, egingo da Pazko jaietako sokamuturra bakarra San Martin plazan. Azken urteetan ez da antolatu eta, horregatik, hauxe da berritasunetako bat. Segidan, entzierroa izango da zezen-plazaraino eta ondoren enbolatuak. Domekan, astelehenetan eta martitzenetan egingo dira entzierroak. 09:00etan izango dira eta ibilbidea urterokoa izango da: Gaspar jatetxeko garajetik irten, Barrenkalean zehar San Martin plazara, eta Bidekurutzeta eta Ramon Maria Lili kaleetan barrena, zezen-plazara heldu arte. Gero, enbolatuak egingo dira.

Sokamuturreko eta asteleheneko entzierroko zezenak Lasturtik ekarriko dituzte; domeka eta martitzenekoak, berriz, Orozkotik. Mantso eta guzti, zortzi zezen inguruk egingo dute entzierroaren ibilbidea.

## ERREKTADOREEN TXAPELKETA

**B**osgarren urtez jarraian jokatu da Bergaran Euskadiko errektadoreen txapelketarako proba puntuagarria. Berez, hiru probatan erabakiko da txapelketa hori, eta Bergarako lehenengoa izango da. Beste biak Elgoibarren eta Tolosan jokatu dira. Sailkapen orokorrean lehendabiziko postuan gelditzen den bikoteak 3.000 euro eskuratuko ditu.

Zapatuan, bederatzik bikote izango dira lehian Bergarako zezen-plazan. Gipuzkoako, Nafarroako eta Zaragozako bikoteek jardungo dute, eta ez dago favorito garbirik. Aurreko urteetan bezala, bikote bakoitzak lau minutuko tarte izango du: lehenengo minutuan bigantxei errektoreak egiten saiatuko dira eta beste hiru minutuetan ahalik eta uztai gehien zintzilatu beharko dizkiete adarretan.

## DEBAGOIENKO TOREATZAILEAK

**Z**ezzenketan, eskualdeko toreatzaile batek bakarrik hartuko du parte: Ander Alvarez bergararrak, hain zuzen ere. Aldiz, Euskadiko errektadore txapelketan, debagoiendar ugari eman dute izena.

Euskadiko errektadoreen txapelketa hiru probatan neurtuko dute, eta Bergaran, lehenengo proba puntuagarria egingo da bihar, zapatuan. Bertan, Iker Agirre eta Unai Arana bikote bergararrak hartuko du parte, esaterako. Baita Blas Cruz eta Iñaki Ganuza Arrasateko bikoteak ere. Egoitz Garcia Etxabe aretxabaletarrak, berriz, *Pelute* nafarrekin osatuko du bikotea. Errekorte artistiko onena epaitzeko lanetan, Juanjo Arrieta, Bergarako Udaleko zinegotzia, Juan Luis Bikuña, Zezen Zaleak taldeko kidea eta David Maestre arituko dira; *Speaker* lanetan, berriz, Iñigo Almorza.

■ ARITZETA ABESBATZAREN ZILARREZKO EZTEIAK

# Aritzeta, 25. urteurrena kantuan ospatzeko gertu

USOA AGIRRE

**A**ritzeta abesbatzak 25 urte bete ditu aurten. Hori dela eta, hainbat ekintza antolatu dituzte. Gaur egingo dute ospakizun nagusia Bergarako pilotalekuan; kontzertua eskainiko dute, Bergarako beste hainbat talderen laguntzaz.

Duela 25 urte sortu zen Aritzeta abesbatza, 1979an, hain zuzen ere. Abesbatza sortzeko arrazoiak bi izan ziren, nagusiki. Batetik, Bergarako orfeoia harrobi baten beharra zuten eta horretarako Alai taldera jo zuten. Bestetik, herri musika entzuteko gogoia zegoen Bergarako herriarren artean. Hala ere, Aritzeta abesbatzaren sorrera ulertzeko ezinbestekoa da Alai taldearen nondik norakoak jakitea.

## ALAI TALDEAREN EKIMENA

Alai taldeak Bergarako herriko kaleak alaitzen zituen eta herri mailan abesbatza baten beharra sumatu zuten. Garai hartan, Bergarako Orfeoian oso jende gutxi sartzen zen eta orfeoia egiten zuten kontzertuak ere gutxi izaten ziren. Hori ikusita, Orfeoia ren harrobi izan zitekeen abesbatza sortzea bururatu zitzaizen Alai taldeko kideei. Entseatzeko lokala eman zien Udalak, eta horrela sortu zuten Aritzeta abesbatza.

Herriko jende asko aurkeztu zen abesbatzako kide izateko probetara. 70 pertsonak osatu zuten lehenengo abesbatza eta 1979ko Bergarako jailetako egubakoitzean egin zuten lehenengo emanaldia.

## 600 KIDE ETA HIRU ZUZENDARI

Duela 25 urtetik gaur egunera arte, asko izan dira Aritzeta abes-



25 urte hauetan asko izan dira Aritzeta eskaini dituen emanaldiak. Argazkian, 2002ko abesbatzako kideak.

## KONTZERTU GOGOANGARRIA

**A**besbatzaren zilarrezko ezteiak ospatzeko, Aritzeta ren ibilbidea laburbiltzen duen kontzertua eskainiko dute. Lehenengo, abesbatzari buruzko bideoa aurkeztuko dute eta, ondoren, Alai taldearekin hasiko da kontzertua. Aritzeta ren sorreran garrantzi handia izan zuen Alai taldeak eta hiru abesti eskainiko dituzte pilotalekuan, Xabier Olabarriak zuzendurik. Aritzeta abesbatzaren txanda etorriko da gero. Hiru zatitan banatu dute emanaldia. Aritzeta izan dituen hiru zuzendariak hartuko dute parte; Alfredo Gonzalez Chirlaquek lehenengo, Izaskun Labaienek bigarren eta Imanol Urtzelai hirugarren egingo dituzte zuzendari lanak.

Aritzeta ren emanaldiaren ondoren, herriko beste hainbat taldek hartuko dute parte kontzertuan; guztien artean, hiru abesti eskainiko dituzte, tartean, Alfredo Gz. Chirlaquek eginiko *Aritzeta* kanta. Alai taldea, Ezoziko Ama abesbatza, Sostoa abesbatza, Bergarako Orkestra Sinfonikoa, Bergarako Orfeoia, Gabero eta Xamatx Taldea izango dira Aritzeta ren batera.

batzuan jardun duten bergararrak. Guztira 600 bat gizon eta emakume izan dira Aritzeta ren abeslari eta hiru zuzendari izan ditu urte hauetan: Alfredo Gonzalez Chirlaque lehenengo, Izaskun Labaien bigarrena eta Imanol Urtzelai da oraingo zuzendaria.

Emanaldiak ere asko egin dituzte urte hauetan guztietan. Euskal Herrian ez ezik, Espainian, Italian, Alemanian eta Holandan izan dira Aritzeta abesbatzako kideak emanaldiak eskaintzen.

**Aritzeta abesbatzaren sorreran ezinbestekoa izan zen Alai Taldea**

**1979ko Bergarako jailetan egin zuen lehenengo kontzertua Aritzeta**

**Urteurrena ospatzeko kontzertua izango da gaur, 22:30ean, pilotalekuan**

**Aritzeta ren buruzko argazki erakusketa dago udaletxean, ekainaren 1a bitartean**

## KONTZERTUA, PILOTALEKUAN

Abesbatzaren urteurrena ospatzeko, kontzertua egingo dute gaur, Bergarako pilotalekuan, gaueko 22:30ean. Aritzeta ren batera, herriko beste hainbat taldek ere parte hartuko dute kontzertuan.

Horrekin batera, urteotako lana gogoratzeko argazki erakusketa ere antolatu dute. Udaletxe osoko bilkuren aretoan izango dira ikusgai Aritzeta abesbatzaren 25 urte hauetako argazkiak, eta ekainaren 1a bitartean egongo da zabalik erakusketa.



# ALURA, S.L.



ZORIONAK  
DENOI!

- MEKANIZAZIORAKO ALTZAIRUA
- ALTZAIRU HERDOILGAITZA
- TORLOJU HERDOILGAITZA
- ESTANPAZIORAKO ALTZAIRU HERDOILGAITZA
- SOLDADURA HERDOILGAITZA
- ALUMINIOA

HAITZ ITURRI 6 (P. K. 267)  
20570 BERGARA  
Gipuzkoa

Tel. 943 76 02 50  
Faxa. 943 76 03 15  
e-maila: [alura@logiccontrol.es](mailto:alura@logiccontrol.es)





BERGARAKO JAIK GOIENA TELEBISTAN

# Bergaran bertan egotea bezala

**Ekainaren 2an**

21:15 eta 23:15: 'PAZKOAK 2004' saio berezia

**Maiatzaren 30ean**

21:00: XXVII Euskadiko Dantza Txapelketa

**Ekainaren 2an**

20:30: XXVII Euskadiko Dantza Txapelketa (Laburpena)



**Ikustekoa!**

PAZKOAK 2004  
Laguntzaileak: Gorosti Ioradenda,  
Zabaleta errotuloak, Lasa jatetxea,  
Nerea Lentzeria, Imprespal, Azkarate-Ardatza.

# Goienka2a

Egubakoitza / 2004ko maiatzaren 28a

Kultura  
eta  
aisialdia



Maiatzaren 28tik  
ekainaren 4ra



## 1. JETZITAKO ESNEA, ESNE ONTZIRA

Ardiak jetzi ondoren, ontzi honetan gordetzen da esnea. 4 gradutan egoten da esnea ontzian, eta pare bat egun eman ditzake hor, gazta egiten hasi aurretik. Teknologia aurreratuena-ekin jezten dituzte ardiak.



## 2. ESNEAREKIN GAZTA EGIN

Esnea bainera moduko ontzi honetara botatzen da ondoren. Garai batean apatza zuen izena prozesu honetan erabiltzen zen ontziak, baina orain *kuba* deitzen diote altzairuzko honi. Hemen egiten da gazta.



## 3. PRENTSATU

Apatza edo *kuban* gazta tamainan moztu eta gero, plastikozko moldeetan sartzen dira, gaztak bere ohiko forma har dezan. Prentsan jartzen dira molde guztiak bata bestearen atzean, soberan duten ura kentzeko.



## 4. GATZ URETAN 12 BAT ORDU

Prentsan sei bat ordu egon behar izaten du gaztak, soberan duen ur guztia kendu arte. Ondoren, gatz uretan egon behar izaten dute gaztek; kiloko, 10-12 ordu egon behar izaten du gazta bakoitzak.



## 5. HOTZ-KAMERAN BI HILABETE

Gatz uretatik pasa ondoren, hotz-kameran sartzen dira gaztak. Gazta bakoitzak bi hilabete pasa beharko du kameran; denbora hori pasa ondoren kontsumitzeko moduan egongo da gazta berria.



## 6. MAHAIAN

Ardia jezten denetik bi hilabetera, jateko moduan dugu gazta. Bakoitzak gustukoen duen moduan jango du: bakarrik, ogiarekin, irasagar melatuarekin (menbriloa) edo sagardo edo txakolinarekin lagunduta.

## ARTZAITOUR

**Artzainaren lana gertutik ezagutzeko egitasmoan  
Oñatiko bi baserrik parte hartuko dute**

**G**ipuzkoako artzainek beste egitasmo bat jarri dute abian: Artzaitour. Turismoa baserrira, zehazkiago esateko artzainengana erakartzea da ekimenaren helburua: kanpotarrei eskaintza zabalagoa egitea eta bide batez gazta salmenta handitzea.

Gipuzkoako hamasei baserrik parte hartzen dute Artzaitour egitasmoan, tartean Oñatiko bik: Arantzazuko Gomiztegik eta Murgiako Azkarretak. Baserriotan, artzainek gazta nola egiten duten erakutsiko diete bertaratzen direnei, eta gero, eroste-

ko aukera emango diete. Gaztarekin batera, euskal gastronomiako beste hainbat proiektu ere eskainiko dituzte baserrietan.

### ARTZAI GAZTA ELKARTEAK BULTZATUTA

Artzai Gazta elkarteak sortu du Artzaitour ekimena. Duela urtebete-edo hasi ziren ekimen hori sortzeko lanetan, elkarteko artzainekin batera. Dagoeneko aurkeztu dute ekimena, eta orain, bisitarien zain daude artzainak, lanean gelditu gabe, jakina. /14/USOA AGIRRE



AISIALDIA/ ARTZAI GAZTA ELKARTEAREN ARTZAITOUR EKIMENA

# Artzainaren lana, bertatik bertara

ARTZAITOUR EKIMENAK ARTZAINAREN LANA EZAGUTZEKO AUKERA EMATEN DU. OÑATIKO BI BASERRI DAUDE EGITASMOAN

USOA AGIRRE

**G**ipuzkoako hamasei baserriak parte hartzen dute Artzaitour ekimenean. Horien artean daude Oñatiko Gomiztegi eta Azkarreta baserriak, Debagoieneko bakarrak. Turismoa baserrira eta, zehazkiago, artzainengana erakartzea da egitasmoaren helburu nagusia.

Gipuzkoako artzainek euren baserrietako atea ireki dizkiete gazta zaleei, jaten dutenaren jatorria ezagutzeko. Gazta zalea ez denak ere aukera bikaina du artzainen lana ezagutu ahal izateko. Idiazabal jatorri izendapeneko gaztarik onenak nola egiten diren ikusteko aukera izango du bisitariak, baina gaztarik onenez gain, Euskal Herriko gastronomia aparta osatzen duten baserriko beste produktu batzuk ere aurkituko ditu bisitariak: sagardoa, txakolina eta babarrunak, beste-

ak beste. Euskal gazta, gastronomia eta turismoa, hori guztia biltzen du Artzai Gazta elkarteak abian jarri duen Artzaitour ekimena.

## TARTEAN, OÑATIKO BI BASERRI

Guztira, Gipuzkoako hamasei baserri batzen ditu Artzaitour ekimena, eta horien artean daude Oñatiko bi baserri: Arantzazuko Gomiztegi eta Murgiako Azkarreta baserriak, hain zuzen ere. Bi baserri horiek dira, gainera, ekimen honetan parte hartzen duten ibarreko bakarrak. Baserriotan, artzainek gazta nola egiten duten erakutsiko diete kanpotarrei, eta gero, erosteko aukera emango diete. Beste hainbat produktu ere jarriko dituzte salgai. Azkarreta baserriko Ramon Ugartek adierazi digunez, auzoko beste baserrietako produktuak jarriko ditu berak salgai, intxaurrek eta babarrunak, adibidez.

Oñatiko Turismo Bulegoak ere bere eskaintzan barneratuko du Azkarretara eta Gomiztegiara bisita. Oraindik ez dute bulegoan ezer zehatzik eskaintzen, baina dagoeneko jarri dira Oñatiko bi baserriekin harremanetan eta denbora gutxi barru ekimenaren berri izango dute bisitariak turismo bulegoan.

## GAZTAREN KALITATEAREN ALDE

Artzai Gazta elkarteak 80ko hamarkadaren hasieran sortu zen, gaztaren kalitatearen alde lan egiteko asmoz. Aspaldiko ohiturak oinarritzat hartuz eta teknologia berrien bidez, gai izan dira artzainaren gazta gutzia gastronomiko bihurtzeko. Artzai Gazta elkarteak Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 130 ekoizle inguruk osatzen dute. Orain, aukera bikaina eskaintzen du Artzaitour ekimena kalitatezko gazta horiek nola egiten diren gertutik ezagutzeko.



USOA AGIRRE

Bisitariak bertatik bertara ezagutuko dute gazta egiteko prozesua.

RAMON UGARTE / ARTZAINA

## “Gaztaren prozesua erakutsiko dugu”

Oñatiko Murgia auzoko Azkarreta baserrikoa da Ramon. Betidanik izan du artzaintzarekin lotura eta duela zazpi urte-edo sartu zen Artzai Gazta elkartearen. Idiazabal jatorri izeneko gazta egiten du eta Artzaitour ekimenean ere parte hartzen du.

**Zer dela eta sartu zinen Artzaitour proiektuan?**

Egia esan, ez nuen ekimen honetan parte hartzeko gogo handirik. Izan ere, jende gutxi egoten gara baserrian eta nik bakarrik ez dut izaten jendea kasu egiteko denbora gehiegi. Baina, gure baserrira gazta egiteko prozesua ikustera etortzen den edozein ondo hartuko dugu.

**Ekimenak jende asko erakartzea espero duzu?**

Ez dut uste gure baserrira jende asko etorriko denik. Arantzazuko Gomiztegin bisita gehiago egongo direla uste dut. Kanpotik datozen turistendako erakargarriagoa da Arantzazu, gauza gehiago dituzte han ikusteko; hemen gure baserria bakarrik dago. Hala ere, Oñatiko turismo bulegoarekin jarri gara harremanetan eta bisitariak gure berri emango diete han.



Ramon Ugarte.

**Artzainaren bizimodua ere zeharo aldatu da, ezta?**

Bai, dudarik gabe. Lehen, ardiak hartu eta mendira joaten zen artzaina, han goian hilabete batzuk pasatzera, patxadan. Orain, aldiz, baserrian egoten gara egunero, hemen ere lan asko izaten dugulako egiteko. Hala ere, teknologia berriek asko erraztu dute artzainaren lana.

**Orain ere, urte guztia lanean ematen du artzainak.**

Asteko egun denak berdindira guretzat. 20 bat egunez kanpora joaten gara urtero; hemen geratuz gero lana egin beharra dago-eta.

## Sentsazio askatasuna proba ezazu



Besaulkiak eta sofak



Aurkezten den modeloa: Nordic Paloma Cherry 2 plazako sofa - 3.752 €

Plus Sistema™ eksklusiboarekin eta Stressless®-enteknologia aurreratuarekin, besaulkiak eta sofak zure gorputza libre sentiaraziko duten munduko leku bakarrak dira, edozein jarreratan egonda ere. Kolore eta forma **gama guztiak aukeran**, zure saloiko estilora egokitzen dira, amets egiteko edo zure pentsamenduak aske uzteko gogoko duzun toki bihurtuz.

[www.ekornes.es](http://www.ekornes.es)



Diplomat larruzkoa  
953 eurotik aurrera



Windsor larruzkoa 2 plaza  
2.705 eurotik aurrera

Noche y Dia  
Morfeoren besoetan

Atsedeen Etxea

Adriano VI, 17 • GASTEIZ  
Tel./Faxa: 945 21 42 24

IKUSKIZUNA/ 'ESKUAK ELKARRI' ANTZEZLAN MUSIKATUA

# Arrasateko historia taula gainean

GOIKOBALUREN 15. URTEURRENA OSPATZEKO 'ESKUAK ELKARRI' IZENEO ANTZEZLAN MUSIKATUA EGINGO DUTE EKAINEAN

USOA AGIRRE

**A**rrasateko Goikobalu abesbatzak, hamabosgarren urteurrena dela eta, *Eskuak elkarri* antzezlana ekoiztu eta prestatu du, herriko hainbat pertsona eta talderen laguntzarekin. Hain zuzen, ekainaren 11n, 12an eta 13an egingo dute antzezlana musikatua, Arrasateko Amaia antzokian.

Goikobalu abesbatzak badu idatzita ez duen arau bat, baina bost urtean behin zorrotz betetzen duena: ekitaldi berezi bat antolatzea. Ekitaldi horren asmoa izaten da musika alorreko pizkundea eragitea herritarren artean eta arrasatearrei musika ekitaldi berezi batera joateko aukera ematea. Aurten, 15. urteurrena ospatzen dutela eta, ikuskizun erraldoia antolatu dute; Arrasateko historiaren gaineko antzezlana musikatua egingo dute maiatzaren 11n, 12an eta 13an.

## ARRASATEKO HISTORIAREN OINARRITUTA

Goikobalu abesbatzak orain arte egingo lanetatik ezberdina zen zerbait egin nahi zuen, antzerkia, dantza, musika eta Arrasateko historia uztartuko zituena. Horretarako, hain zuzen ere, Josemari Velez de Mendizabali eman zioten beraien asmoen berri, eta hark hasiera-hasieratik erabaki zuen antzerki-lanean parte hartzea. Velez de Mendizabalek idatzi du *Eskuak elkarri*; 1149tik gaur egunera arteko Arrasateko historiaren gainbegiratu egin du antzezlanean. Aipatzekoa da euskaraz ezagutzen diren bertso zaharrenetakoak sartu dituela Velez de Mendizabalek antzezlaren gidoian.

Ordu eta erdi inguruko iraupena izango du antzezlana eta euskaraz egingo dute. Goikobalukoek adierazi dute hirietako antzokiei eskaintza egingo dietela *Eskuak elkarri* Arrasatetik kanpora egiteko.



Atzo aurkeztu zuten ikuskizuna Goikobaluko kideek.

IKER BARANDIARAN

## Parte-hartze handia

**B**ertsolariek, txalapartariak, dantzariak, abesbatzak eta orkestrak parte hartzen dute *Eskuak elkarri* antzezlanean. Josemari Velez de Mendizabalek egin du gidoia eta Sabin Salaberrik konposatu du ikuskizuneko musika. Iñaki Maidagan izango da abesbatzaren eta orkestraren zuzendaria. Antzerki zuzendaritza, berriz, Mikel Irastortzak eta Itziar Rosadok egin dute. Arrasateko Lore Gazteak eta Arrostitz dantza taldeek dantza berriak egin dituzte. Felix Ayalak apaindu du eszenatokia eta Andoni Zubiaga izan da efektu berezien egilea.

## CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

### Talde osoa emakumearen eskura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Nerea Marin

**Antzutasuna**  
**Erditzeak**  
**Antisorgailuak**  
**Menopausia**  
**Ekografiak (4D)**  
**Titietako gaixotasunak**  
**Minbiziaren diagnostiko goiztiarra**  
**Hezur dentsitometria**

Arrasateko kontsultategia:  
Zerkaosteta 17, behea  
Tel.: 943 79 20 18

  
Policlínica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08  
Eibar. Tel.: 943 12 10 21  
Irun. Tel.: 943 61 78 88



# Mai. 28-Eka. 4

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com) • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

## MATRIKULAK

### DEBAGOIENA

► **Lanbide Heziketan** matrikulatzeko epea ekainaren 1etik 9ra bitartean izango da zabalik. Norberak ikasi nahi duen ikastetxean egin beharko du matrikula.

### OÑATI

► **Musika Eskolak** zabalik izango du datorren ikasturterako matrikula epea ekainaren 1etik 15era bitartean. Euren egoitzara jo beharko duzue, 18:00-20:00.

## ERAKUSKETAK

### ARRASATE

► **Monterrongo margo ikasleen** erakusketa dago zabalik Harresi aretoan etzira bitartean, domeka. Gaur, egubakoitza, 18:00-20:00 da ordutegia; bihar eta etzi, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

### BERGARA

► **Aritzeta abesbatzaren** historiaren inguruko erakusketa dago udaletxean, ekainaren 1era bitartean.

► **Pegatina erakusketa** dago Nahikari tabernan, ekainaren 1era bitartean.

► **Simon Arrieta zeramika taldearen** erakusketa dago zabalik kultura etxean, ekainaren 6ra bitartean.

### OÑATI

► **Iraintzea hitzez jotzea da** erakusketa ikusteko aukera duzue gaur, egubakoitza, kultura etxean.

## DEIAK

### ARRASATE

► **Horma handienak era askean** diapositiba emanaldia egingo du Eneko Pou mendizaleak gaur, egubakoitza, Monterronen, 19:00etan.

► **Emakumeak zinemagintzan** delako hitzaldia egingo du Carmen Urruela adituak eguaztenean, hilak 2, Emakume Txokoa, 19:00etan.

► **Aste Berdea** hasiko da etzi, domeka. Mendi irteera antolatu dute egun horretarako. Udaletxe aurrean bilduko dira 09:00etan; norberak bere autoz joan beharko du. Elorregi, Bedoña, Udala... bisitatuko dituzte.

► **Barrea arazoan aurrean; arazoei aurre egiten jakitea** hitzaldia antolatu du Arizmendi ikastolako Haur Hezkuntza sailak eguenerako, hilak 3. San Viator Txiki gunean izango da, 18:00etan.

### DEBAGOIENA

► **Kontseiluak antolatutako agerraldia** joateko bi autobus antolatu dituzte euskara elkarteek. Agerraldia ekainaren 5ean izango da, Iruñean, eta euskararen normalizazioaren aldeko deia egingo da bertan. Autobuserako txartelak salgai daude Bergaran, Jardunen, Arranoan eta Kortazarren; eta Arrasateko AED elkartearen egoitzan. Bazkide eta langabeek 6 euro ordaindu beharko dituzte; gainerakoek, 7. Mugaeguna ekainaren 3a da.

► **Hainbat ikastetxetako ikasleek bertso emanaldiak** egingo dituzte. Hain zuzen, eguaztenean, hilak 2,

Arrasateko Gazteluondo eta Santa Teresako ikasleek egingo dute, Amaia Udal Antzokian, 18:00etan; eta eguenean, hilak 3, Kurtzebarri eskolako eta Arizmendiko Almen gunekoek egingo dute, Aretxabaletako Kurtzebarri eskolan, 17:00etan.

► **Modu konpultsiboan jaten duten pertsona anonimoen elkarteak** dago Bilbon, eta astero egiten dituzte bilerak arazo horri aurre egiteko. Debagoiengan arazo hori dutenei deia egiten diete bat egiteko. Gose izan gabe edo aldi bakar batean larregi jatea, janariarekin arazoak izatea edo pisuak bizitzari afektatzea dira sintoma batzuk. Argibideetarako, deitu 689 62 39 25 telefonora.

### ESKORIATZA

► **Psikopedagogia ikasketak** bukatu dituztenei orlak banatuko zaizkie gaur, egubakoitza, HUHEZIn, 18:00etan. Hirugarren promozioiko 50 ikasleek jasoko dituzte orlak.

► **Minbiziaren oraina eta geroa** hitzaldia egingo du Jose Antonio Alberro Donostiako Onkologikoko zirujauak eguenean, hilak 3, kultura etxean, 19:30ean.

### OÑATI

► **Châteaubernard hiriko bisitariendako** harrera familiak behar dira. Hiri hori Oñatirekin anaituta dago, eta talde bat etorriko da uztailean. Asteburua pasatuko dute gurean. Argibideetarako, deitu kultura etxera (943 78 03 53) edo Jose Antonio antolatzaileari (943 73 92 29 / 043 78 10 66).

► **Ate ireki jardunaldia** izango da Musika Eskolako tailerren gaur, egubakoitza, aurten 4, 5 edo 6 urte bete behar dituzten umeendako. 4 eta 5 urtekoek 17:30ean dute hitzordua; 6 urtekoek, 18:00etan.

► **Naturaren poesia** delako argazki eta poesia emanaldia egingo dute Josu Garaik eta Joana Olabariak martitzenean, ekainak 1, kultura etxean, 19:30ean, Makalena elkarteak antolatuta.

## MUSIKA

### ARRASATE

► **Piano kontzertua** izango da gaur,

**EKAINEAN**

**30**

**EGUN PAREGABE**

Orain, ekainean, egunero eskaintza ezin hobea izango duzu. Astebetean bakarrik lor dezakezu, edo plazak bukatu bitartean. Zabiltza arin!

<b>MALLORCA</b>	269€
Ekaina. Uztailaren 18ra arte. Iraila. Urria. 8 egun-7 gau. Hegazkina Bilbotik. Hotela****. Mantenu erdia.	49.758 Pta
<b>GRAN CANARIA</b>	323€
Ekaina. Uztailaren 18ra arte. Iraila. Urria. Hegazkina Bilbotik. 8 egun-7 gau. Mantenu erdia.	53.743 Pta
<b>TENERIFE</b>	389€
PUERTO DE LA CRUZ. Ekaina. Uztailaren 18ra arte. Iraila. Urria. 8 egun-7 gau. Hegazkina Bilbotik. Sol Puerto Playa/Atalaya/Maritim Tenerife Hotelak****. Mantenu erdia.	64.724 Pta
<b>BENIDORM</b>	170€
06/19etik 07/2ra. 8 egun-7 gau. Onasol Hotelak**. Mantenu osoa. LEHEN HAURRA DOHAINIK. BIGARREN HAURRAK %50EKO DESKONTUA.	28.286 Pta
<b>CRUCERO FLAMENCO</b>	725€
06/20tik 07/26ra. 09/20tik 09/27ra. 8 egun-7 gau. Irteera Bartzelonatik. Mantenu osoa.	120.630 Pta

... Eta horrela uneko preziorik onena asteko egun guztietan



**Viajes Eroski Bidaia**

Grupo Eroski

Kalitatea Bermatuta

www.viajeseroski.es 902 15 87 35



### ► DEIAK

## EUSKAL HERRIA ZUZENEAN JAIALDIAK LAGUNTZAILEAK BEHAR DITU

Euskal Herria Zuzenean musika eta kultura jaialdia abian dago beste behin. Aurten, Zuberoako Indauze Mendin egingo dute uztailaren 2tik 4ra bitartean, eta, urtero bezala, hainbat ekitaldi bateratuko ditu: antzerkia, dantza, berbaldiak, erakusketak, umeendako txokoak eta kontzertu ugari. Jaialdiak langile boluntarioak behar ditu, eta Topaguneko Gazte Sailak bideratuko du hori. Hiru aukera dituzue: ekainaren 28tik uztailaren 4ra, muntatze lanak egin eta jaialdian parte hartu; uztailaren 2tik 7ra bitartean, lan egin eta desmuntatu; eta hilaren 2tik 4ra bitartean, jaialdian lan egin. Ekainaren 4a duzue mugaeguna izena emateko, eta Arrasateko AEDn egin ahal izango duzue. 23 euro da.

**Non:** Izenematea, Arrasateko AED elkarteak. **Noiz:** ekainaren 4ra bitartean. **Prezioa:** 23 euro.





## IRAIKNEK EGITEN DUTEN KALTEAREN GAINEKO ERAKUSKETA

*Iraintzea hitzez jotzea da erakusketak bisitatzeko azken eguna duzue gaur, egubakoitza. Oñatiko kultura etxean dago zabalik, eta ezohiko erakusketak da: Gregje de Maeyer idazlearen Juul pertsonaia oinarrituta, gaztetxoak konturazazi nahi ditu iraike egiten duten kalte larriak. Koen Vanmechel artistak egindako egurrezko eskulturen bidez irudikatzen da eragin hori. Erakusketak zabalik dago 18:30etik 20:30era bitartean.*

egubakoitza, musika eskolan, 18:30ean.

► **Numen taldeak** hirugarren diskoa aurkezteko emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean. Suffering Down taldeak ere joko du. ► **2x6 taldeak** kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, Corazon de Encina elkartearen egoitzan (Araba etorbidean), 22:30ean, eta bihar, zapatua, gaztetxean, 19:00etan. Kideetako bat Alberto Rodriguez arrasatearra da. Guns'n'Roses, Placebo, Pixies, Iggy Pop... eta beste hainbat talderen bertsoiak joko dituzte, era akustikoan. ► **Tronboi, bonbardino eta tuba kontzertua** izango da martitzenean, ekainak 1, musika eskolan, 19:15ean.

### BERGARA

► **Fito y Fitipaldis** taldeak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Jamen, 22:00etan. Taldeak *Lo más lejos, a tu lado* disko berria aurkeztuko du. DJ gonbidatu batek ere musika saioa eskainiko du. ► **Rumenige, Thomas P. Heckmann, Mathias Schaffhauser** eta beste disko jartzaile batzuek techno jaialdia girotuko dute bihar, zapatua, Jam aretoan, 00:00etan. 15 euro da. ► **Anathema eta Autumnal** taldeek kontzertua eskainiko dute etzi, domeka, Jam aretoan, 21:00etan. Anathema taldeak disko berriaren aurkezpena egingo du.

### OÑATI

► **Los gustos reunidos** emanaldia egingo du Pandora Duoak etzi, domeka, Santa Ana aretoan, 19:30ean, Oñatiko Musikegunak jardunaldien barne. Andoni Mercero (biolina) eta Sara Erro (klabezina) musikariek osatzen dute Pandora. ► **Musika Eskolako ikasleek** kontzertua eskainiko dute ekainaren 2an, eguaztena, Santa Ana aretoan, 18:30ean.

## ANTZERKIA

### ARETXABALETA

► **Kutsidazu bidea, Ixabel** antzezlanaren eskainiko du Gorringo taldeak gaur, egubakoitza, kirol etxean, 22:30ean. 8 euro da.

### ARRASATE

► **Zazpi gezur txiki** antzerki eta musika ikuskizuna eskainiko dute Ramon Agirre aktoreak eta Joserra Senperena musikariak gaur, egubakoitza, Jai Zale tabernan, 23:00etan, Kultur Errota egitasmoaren barne.

### ESKORIATZA

► **Helduendako ipuin kontaketa** izango da gaur, egubakoitza, unibertsitatean, 22:30ean. Nunila ipuin kontaketaile katalanak eskainiko du saioa

# Zinema

### ARRASATE

#### ■ AMAIA ANTZOKIA

#### *Cuentos de la guerra saharai*

Egubakoitza, hilak 28, zinekluba: 20:30.

#### *La mala educación*

Zapatua eta domeka: 19:00, 22:00.

Astelehena: 20:30.

#### *Peter Pan, la gran aventura*

Domeka: 17:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

### OÑATI

#### ■ OÑATIKO ZINEMA

#### *50 primeras citas*

Egubakoitza: 22:30. Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

### ARAMAIO

#### ■ KULTURA ETXEA

#### *Goodbye, Lenin!*

Egubakoitza: 22:00.

### EIBAR

#### ■ UNZAGA

#### *El día de mañana*

Egubakoitza: 19:30, 22:15. Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15

Eguaztena, ikuslearen eguna.

#### ■ RIALTO

#### *Troya*

Egubakoitzetik martitzenera: 18:30, 22:00.

Martitzena, ikuslearen eguna.

### GASTEIZ

#### ■ GURIDI

#### *Troya*

Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:30, 22:30.

Domeka: 17:30, 20:30.

#### *Van Helsing*

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.

Domeka: 17:30, 20:15.

#### *El día de mañana*

17:00, 20:00, 22:30.

#### A+

17:30, 20:00, 22:30.

#### *Cleopatra*

20:00.

#### *Giro inesperado*

17:00, 19:45, 22:30.

#### *Romasanta*

17:30, 22:30.

#### *Muertos comunes*

17:30, 20:00, 22:30.

#### ■ MIKELDI ZINEMAK

#### *Ladykillers*

17:15, 20:00, 22:30.

#### *Mystic river*

Egubakoitza: 17:00, 19:50, 22:35.

Zapatua eta domeka: 19:50, 22:35.

#### *Lost in translation*

Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:30.

Zapatua eta domeka: 20:00, 22:30.

#### *Peter Pan: la gran aventura*

Zapatua eta domeka: 17:15.

#### *Troya*

16:45, 19:45, 22:45.

#### *Van Helsing*

17:15, 20:00, 22:30.

#### *Niñera a la fuerza*

17:30, 20:15.

#### *La puta y la ballena*

22:30.

#### *You got served*

17:15, 20:00.

#### *Hermano oso*

Zapatua eta domeka: 17:20.

#### *Cosas de familia*

22:45.

#### *El día de mañana*

17:30, 20:15, 22:45.

#### *Misión sin permiso*

17:30, 20:15, 22:45.

#### *El príncipe y yo*

16:00, 18:20.

#### *Romasanta, la caza de la bestia*

20:30, 22:30, 00:30.

#### *La matanza de Texas*

16:15, 18:15, 20:20, 22:45, 01:00.

#### *Giro inesperado*

16:15, 18:15, 20:20, 22:45, 01:00.

#### *Troya*

16:00, 19:10, 22:10, 01:10.

#### *A contrarreloj*

16:00, 18:15.

#### *You got served*

Egubakoitza: 16:00, 18:00, 20:10, 22:15, 00:30.

Zapatua: 20:10, 22:15, 00:30.

Domeka: 20:10, 22:15.

#### *El día de mañana*

17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

Martitzena eta eguna, ikuslearen eguna.

#### ■ FLORIDA-GURIDI

#### *Héctor*

18:00, 22:30.

#### *Ladykillers*

18:00, 20:15, 22:30.

#### *Memories of murder*

17:30, 20:00, 22:45.

#### *Sonny*

20:15.

#### *Russian ark*

18:00, 20:15, 22:30.

#### *Wonderland*

18:00, 20:15, 22:30.

#### *Wilbur se quiere suicidar*

17:30, 20:00, 22:30.

#### *The mother*

17:30, 20:00, 22:30.

#### ■ ABACO-LAKUA ZINEMAK

#### *Hermano oso*

Zapatua eta domeka: 16:00, 18:00.

#### *Van Helsing*

16:15, 19:00, 22:00, 00:45.

#### *La pasión de Cristo*

Egubakoitza: 17:00, 00:45.

Zapatua: 19:30, 22:00, 00:45.

Domeka: 19:30, 22:00.

#### *50 primeras citas*

20:40, 22:50, 01:00.

#### *Scooby doo 2*

Zapatua eta domeka: 17:15.

#### *El príncipe y yo*

16:00, 18:20.

#### *Romasanta, la caza de la bestia*

20:30, 22:30, 00:30.

#### *La matanza de Texas*

16:15, 18:15, 20:20, 22:45, 01:00.

#### *Giro inesperado*

16:15, 18:15, 20:20, 22:45, 01:00.

#### *Troya*

16:00, 19:10, 22:10, 01:10.

#### *A contrarreloj*

16:00, 18:15.

#### *You got served*

Egubakoitza: 16:00, 18:00, 20:10, 22:15, 00:30.

Zapatua: 20:10, 22:15, 00:30.

Domeka: 20:10, 22:15.

#### *El día de mañana*

17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

#### ■ YELMO CINEPLEX-GORBEIA

#### *Van Helsing*

12:15, 17:30, 20:00, 22:30, 00:55.

#### A+

12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

#### *El enviado*

12:15, 16:05, 18:05, 20:05.

#### *A contrarreloj*

12:15, 16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

#### *El efecto mariposa*

12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:50.

#### *Troya*

Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:30, 23:45.

Domeka: 12:15, 15:45, 19:00, 22:15.

#### *Hermano oso*

12:15, 16:40, 18:40.

#### *Peter Pan: la gran aventura*

12:15, 16:05, 18:15.

#### *50 primeras citas*

20:20, 22:20, 00:20.

#### *La matanza de Texas*

20:40, 22:40, 00:40.

#### *Giro inesperado*

12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

#### *La puta y la ballena*

21:50, 00:30.

#### *Big fish*

Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:00, 22:15, 00:35.

Domeka: 12:15, 16:30, 22:15.

#### *Starsky y Hutch*

Egubakoitza: 15:55, 17:55, 19:55.

Zapatua: 15:55, 17:55.

Domeka: 12:15, 15:30, 22:30.

#### *Ladykillers*

12:15, 16:05, 18:10, 20:15, 22:20, 00:25.

#### *El día de mañana*

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

Domeka: 12:15, 15:30, 20:00, 22:30, 01:00.

#### *Scooby doo 2*

12:15, 16:25, 18:25.

#### *You got served*

20:25, 22:25, 00:25.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.

Eguerdiko saioak, domekan.

Astelehena, ikuslearen eguna.

#### ■ ÁBACO BOULEVARD

#### *El enviado*

Egubakoitza: 20:30, 22:45, 01:00.

Zapatua: 01:00.

**INMO f3**  
SARE inmobiliaria

Erdiko kalea 26  
ARRASATE  
943 79 12 79

**SALGAI**

**ARRASATE**

